

15111K

Pedagogi aldizkaria 19 1994

AZKUE BIBLIOTEKA (EUSKALTZAINDIA)
Plaza Barria 15
48005 BILBO

15111K kal curriculumuma



Damako eskola 1930ean

eztabaidan

*le franquismo
sus causas en*

SEBASTIAN
22396

ESPAÑA

SORGINAK ETA EUSKAL HERRIA



ROBOTEN MUNDU KEZKAGARRIA



ANTZINAKO EGIPTON BARRENA



OINARRIZKO LIBURUTEGIA

- Erreformarako liburu-bilduma.
- Irakasleei begira egindako materialea.
- Punta-puntako gai monografikoak.
- Euskaraz eta Euskal Herrian sortua.
- 76 orrialde eskema eta argazki ugariz osaturik.
- Bibliografia, kronologia eta glosategia.

HARPIDETZAREN ABANTAILAK

- Urtean 8 liburu jaso, horietako bat dohainik.
- Liburu bakoitzak 950 pezeta.
- Ordainketa bi partetan egiteko aukera.
- Interesaturik egonez gero beheko txartela bete.

BESTE TITULUAK

1. Islam-a
2. Ekologia ala hil.
3. 1492: Amerikaren konkista.
4. Materiaren erdigunearen bila.
5. Arrazismoa beti bizirik.
6. Gazteak eta sexualitatea.
7. Gurutzadak eta tenplariak.
8. Lurraren ezkutuko historia.
9. Sorginak eta Euskal Herria.
10. Roboten mundu kezkarria.
11. Antzinako Egipton barrena.
12. Zenoikoaren ugaztunak.

HARPIDETZA TXARTELA (Tarjeta de Suscripción)

Izen-Abizenak
(Nombre-Apellidos)

Helbidea
(Dirección)


Herria Posta kodea Telf.
(Localidad (Cod. postal)

Banku/Aurrezki Kutxa
(Banco/Caja de Ahorros)

Sukurtsala Kontuaren zenbakia
(Sucursal) (Nº de cuenta)

Data Sinadura
(Fecha) (Firma)

GAIK ARGITALDARIA. San Bartolomé 36 - behea
2007 - DONOSTIA - (Tf.: 471304)



12/5888
VR-028/8

Euskal curriculumuma



eztabaidan

Argitaratzailea:

Irakasle Elkartea

Egileak:

Irakasle, guraso, psikologo,
pedagogo, eta beste.

Kolaborazioak:

Pello Aierbe, Jose Luis Alvarez
(Txillardegi), Jaione Apalategi, Joseba
Arin, Abel Ariznabarreta, Joxe Mari
Auzmendi, Felix Basurko, Bego Bilbao,
Ana Isabel Eizagirre, Lore Erriondo,
Felix Etxeberria, Feli Etxeberria,
Gurutze Ezkurdia, Joxerra Gartzia,
Juanjo Gomez, Xabier Isasi, Antton
Izagirre, Edurne La Concha, Rafa
Lopez, Iñaki Murua, Lontxo Oiartzabal,
Fito Rodriguez, Josu Sierra, Josu
Txapartegi, Txantxon Zubeldia, etab.

Inprimaketa:

GERTU, S.Coop. Oñati

Fotokonposaketa:

Langoitz S.L. Legazpi.

Lege Gordailua

S.S. 509/82

Irakasle Elkartea
Plz. Amezketan, 12 - 8. a F
20010 Donostia
Tfnoa-FAX.a: 45 51 00

ISILIK aldizkariko idazlanetaz inon
baliatzerakoan aipa bedi, iturria.

Salneurria
400 pzta. (BEZ barne)



AURKIBIDEA

EDITORIALA	4
EUSKAL IRAKASKUNTZA ETA CURRICULUMA (Jaione Apalategi)	5
HEZKUNTZ ERREFORMA ETA LURRALDE TASUNA (Gurutze Ezkurdia)	8
ERREFORMA, CURRICULUMA ETA KULTURA (Bego Bilbao)	11
EUSKO IKASKUNTZAK HEZKUNTZ SAREAN (Rafael Lopez Atxurra)	13
PEDAGOGI BERRIKUNTZA, VERSUS ERREFORMA? (Abel Ariznabarreta)	15
EUSKAL ESKOLA ELEBIDUNTZEKO ESKOLA? (Xabier Isasi eta Lore Erriondo)	21
Elkarrizketa EUSKO IKASKUNTZA HEZKUNTZ SAREAN	27
IZARRA ESKOLAURREKO ESPERIENTZIA (Edurne Laconcha)	35
VIGOTSKI ETA OTEIZA (Josu Txapartegi)	36
LIBURU AIPAMENA	38



1973X
D.E. JUN 1993

EDITORIALA

Euskal curriculumuma eraikiaz



Latinetik eratorritako hitz zahar honek sekulako gaurkotasuna lortu du gure artean. Hego Euskal Herrian, Irakaskuntzaren erreforma orokorraren ezarpena dela eta, horretaz aparte, 1993an "Euskal Eskola Publikoaz" eta "Unibertsitateko kanpoko Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Irakasleen

Kidegoaz" deituriko legeak direla medio sorturiko eztabaidak gizartean, puri-purian ezarri dute eskola-proiektua eta bereziki, eskola-curriculumuma bera ere.

Funtsean, Hezkuntza-egitarauetz ari bagara ere, beronetaz iharduterakoan bazter ezinezkoak dira xede ez-hezigarriak, eta are gutxiago helburu horiek lortzeko beharrezko ditugun edukin, esperientzia eta metodologia guztiak. Izan ere, egungo irakaskuntza-giroan, "curriculum" hitzaren barnean biltzen baitira eskolaz-eskola aipaturiko kontzeptualizazio zein praktika oro.

Hain dugu garrantzitsua, Eusko Ikaskuntzak berak ere 75. urteurrenari buruzko ospakizun nagusitzat *Euskal Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean* izenburupean aurkeztu digu (XII. KONGRESUA. GASTEIZ. 1993ko Azaroak 30, Abenduak 1-2-3).

Hori dela eta, geu ere saiatu gara bada, ISILIK aldizkari honetan egunerokotasunak agintzen duen gai honetaz sakontzen eta beronen inguruan eginiko saiakera desberdinen berri eman ere eman nahi izan dizugu, irakurle.

Halere ezin ahaztu, Curriculumaz aditua den BERNSTEIN soziologoak 1971an idatzirikoa: "Gizarte batek, zein-nahi hezkuntz-ezaguera hautatu, sailkatu, hedatu, helerazi eta ebaluatzen dituela ere, bertan dagoen botere eta kontrol-sistemak isladatuko ditu". (Bernstein, B. "On the classification and framing of educational knowledge". M.F.D. Young (ed.) Knowledge and control. Collier Macmillan. London.)

Beraz, curriculumaren egituraketa ez da inolaz ere neutraltzat har daitekeen ekintza. Aitzitik, curriculumaren ezarketak tokian-tokiko zapalketen ondorioak ditugu (1).

Gure kasuan asko dira eskolan negatiboki isladaturiko kultur zapalketak (2) eta beste asko ordea, zentzu positiboan egin beharrekoa euskal curriculumuma eraiki artean.

Beraz, heziketa arloan daukagun bazter ezinezko erronka zail honi erantzun asmoz, zenbait material eskaini nahi dizu ale honek, irakurle. Horrela bada, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea den Jaione APALATEGIK jorraturiko **Euskal Irakaskuntza eta Curriculumuma** izenburua daraman artikulua hasiera eman nahi izan diogu premiazkoztat jotzen dugun hausnarketa honi. Ondoren, E.H.U.ko irakaslea dugun Gurutze EZKURDIAK, **Lurraldetasunaren tratamendua Hezkuntz-Erreformatan**

aztertzen digu. Gero, Erreforma dela eta, bertan kontraesan gisa edo, aurkitzen den **Pedagogi Berrikuntzaz** mintzo zaigu Abel ARIZNABARRETA irakaslea. Kulturaren gaia berriz, Bego BILBAOren eskutik datorkigu. Xabier ISASI eta Lore ERRIONDO irakasleek aldiz, **Euskararen egoera legedian eta heziketa-praktikan** aztertzen duten artikulua ondoren, ISILIK aldizkari erreportarietako Eusko Ikaskuntzako ordezkari den Rafa LOPEZ ATXURRARI eginiko elkarrizketa dator, non Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresuaren berri eskaintzen zaigun.

Honoko ikerketa hauek gutxi balira, egon badago hausnarketarako beste biderik. Izan ere gogoetak deituriko sailean **VYGOTSKI** eta **OTEIZA** aitzakiatzat harturik Josu TXAPARTEGI irakaslearen iritziaz batera, Eusko Ikaskuntzaren aburuz **Erreformatan Euskal Curriculumari** zor zaion edota ematen zaion tratamendua baitatorkigu beste artikulutxoak.

Eta azkenik, liburu eta materialen aipamena eskaintzen zaizu. Ez da gutxi, gero... hastapenean aldarrikatzen genuen gogoeta egiten hasteko. Guri dagokiguna beraz, egina dago. Hemendik aurrera irakurle zaitugun horri, zure lan lasai bezain goxoa hastea besterik ez dagokizu. Bejondeizula!

Euskal Irakaskuntza eta Curriculumuma


■ Jaione APALATEGI - Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Euskal irakaskuntza eta curriculumez arduratzea, hezkuntza kontzeptua bera jorratzea eta menperatzea litzateke, batetik, eta hezkuntzaren errealitateaz kezkatzea bestetik, eta azkenik, euskal hezkuntzaren izate berezia mugatzea, (APALATEGI, 1993). Bestalde, guzti honetaz iharduteak hezkuntzaren ondorioz, gehiengoentzat lortzen den ondarena hedatzeko eta bere garapena zihurtarazteko asmoz, euskarri sendo bat eraikitzea, giza talde desberdinen ekimen nagusietako bat da, berau "Hezkuntz Sistema" izenez ezagutzen dugun agiria delarik (APALATEGI, 1992).

Euskal Herriak, ez du bere Hezkuntz Sistemarik; horregatik, bere "Hezkuntza" bertan diharduten, Espainia eta Frantziako estatueta Hezkuntz Sistemetara (EEHS/FEAS) egokitu beharrean aurkitzen da. Arrazoi honek, ez du ahuldu edo suntsitu euskal hezkuntza eta ikaskuntzen inguruko grina eta kezka. Azken hogeitamarkada honetan batipat, goraka eta sendotzen dihoala esan dezakegu (EHIE, 1988), (TANTAK, 1990), (EUSKO IKASKUNTZA, 1993). Baldin eta, argibide hauek, kontutan ez baditugu hartzen euskal irakaskuntza eta curriculumaren arloan errenka ibiliko gara.

Hemen eskaini zaigun, idatzgune honetan, curriculumuma dugu aztergai, eta berau (EEHS) bereganatuaren ikuspuntutik aztertuko dugu.

Oro har, euskal irakaskuntza-ikaskuntzaren garapena, curriculum hitzaren ingurutik landu behar da eta, bere eraldaketaz arduratu ahal izateko, dihardugun (EEHS)ren barne, curriculumaz ulertzen dena ezagutzea ezinbestekoa da (BARBERA, 1989). Honetarako, curriculum diseinuaren (CD) kontzeptuaz, zer ulertzen den jakitea lehenengo eginbeharra da.



Grafiko honen irakurketa, hau da: gaur egun ez daiteke ikastetxe baten hezkuntzaz ihardun, curriculum diseinuaz (C.D.), mintzatu gabe. Ikastetxeek, bere hezkuntz elkartearen bitartez, euren izate bereziaren nortasuna eta honekiko hezkuntz proiekturik egokiena topatzen saiatu behar dute; gero ikasleak, hemendik darion iharduera, arau, balio eta ezagutza mota jasoko

ditu. Baina, estrategia/ibilbide guzti honen mugak, Estatu espainiarraren arrazoi politiko, hezkuntz politika eta beste argudiopean daude, eta Hezkuntz Sistemaren barnean, bi eratarik landuko dira:

1.- (EEHS) bereganatuak funtsezkotzat jotzen dituen oinarriak non "ikastetxea-hezkuntz elkarte" ikaspede/metodologi zehatz baten suspertzaile

izango baita, hots: erkidezale, ekinezkoa, zuzendurikoa, bateratzaile eta ulergarria; eta "irakaslea" berriz, ikaslearen curriculuma bideratu, bereiztu eta, hazi ahala ikasgai egokienak zein gutxiengo jakintza arloak hautatzen lagunduko diona bilakatuko du, honetarako irakasleagoak babes sendoa izan beharko du noski, besteak beste:

- etengabeko heziketa bultzatu, bernorabidetu eta egokituz;
- bitarteko funtsezkoak bermatu;
- pizgarritasuna hezi eta suspertu;
- ebaluaketa bene-benetan hornitu;
- hezkuntz ikerketa bultzatu, ... etabar.

2.- (EEHS)ren egilea den Madrilgo Hezkuntz eta Zientzia Ministeritzak (MEC edota HZM), curriculumaren helburu orokorrak finkatuko ditu, estatu osoan diharduten ikastetxe guztientzat, publikoak zein pribatuentzat ... Curriculum kontzeptua berriz, iritzi zehatz batzuen inguruan landatuko delarik:

a) Curriculumak, eskola ingurunearen bitartez, ikasleari ikasteko ahalbidetarik eskainiz gain hastapen-jarrera eta prozedurak ere eskaini behar dizkio, isileko edo azalpen gabekoak ere kontutan hartuko direlarik.

b) Curriculum orokor hori, irekia eta malgua dela baieztatzen da ... , lurralde autonomoetako hezkuntz administrazioak, zehazteko ahalmena dutelarik (...).

d) Irakaskuntza eraberritzea, curriculum-hezkuntz xedea eta egokitzapen baldintzak bereganatzea dela dio.

e) Curriculum helburu orokorrak, asmo nagusi honetan finkatu behar dira:

- ikasleen, giza eta moralezko hezkuntzan (...),
- bereizketarik egiten ez duen hezkuntzan (...),
- eskola, ingurunearekin harremanetan jarriko duen hezkuntzan (...).

Hastapen guzti hauek, hezkuntza, ekintza bihurtzeko eta behar dituzten norabideak topatzeko, curriculumaren "osagai" eta "iturri"en ausnarketa eskatzen dute. Hauek dira, euskal curriculum, zer den ulertzeko eta beste edozeinetatik (suediar, alemandar,

kanadiar, frantziar, greziar, espainiar, ...) bereizteko behar ditugun tresnak.

Curriculumaren osagaiak ezagutzeak, galdera multzo eta zehatz batzuei erantzutea eskatzen du:

1.- ZER erakutsi: hezkuntz asmo nagusi eta helburu batzuen hautaketa eta zehaztapena da, kultura bati dagokion ezaguera zabaltzeko asmoak dira.

2.- NOIZ erakutsi: denbora eta ikasturtean zehar edukinen antolaketa eta banaketa proposatzea da.

3.- NOLA erakutsi: irakaskuntza-ikaskuntza ekintzak, helburu eta helmuga errealak izateko hezkuntz helburuak nola hautatu eta taxutuz arduratzen da, ... metodologia aproposa bilatuz...

4.- ZER, NOIZ eta NOLA ebaluatu hezkuntza hastapen, asmo eta proiektu zehatzen arabera egingo da. Hauek berriz curriculumaren iturriekin zerikusia dute:

4.1.- sozio-kulturala: giza balio antolaketa eta teknologia ditu langai.

4.2.- epistemologikoa: zientzien eboluzioaz eta hauen arteko logikotasunaz arduratzen da.

4.3.-pedagogikoa: hezkuntzaren helmugaz gain, etorkizuneko giza-emaume ere duaz eta hezkuntz praktika

ditu aztergai.

4.4.- psikologikoa: irakaskuntzaren iharduera prozesua eta irakaslearen berezitasunak ditu ikergai.

Euskal irakaskuntzak, beste edozeinek ez bezala ulertu behar du azaldu duguna, bere curriculuma egiteko dituen txirrisku eta guneak menperatuz.


Beraz curriculumaren izaera, ikastetxe batetik begiratu ala hezkuntz ministeritzatik begiratu gauza bera da, arazoa beste honoko hau da, hots, bere osagai eta iturri horiek zer/nork bete behar duenarena, alegia.

Hain zuzen ere (EEHS)ren arduradunak (MEC, edo HZM) curriculumaren hezurduraketa honela egitea proposatzen du.

1.- OINARRIZKO DISEINU CURRICULARRA (OCD), euren eta elkarte autonomoetako hezkuntz sailen esku egotea.

2.- IKASTETXEKO CURRICULUM PROIEKTUAK (ICP), aurreko gomendioak jarraituz, irakas taldeak, euren ikastetxera egokitu ahal izango dute, "hezkuntz proiektua" dutelarik hortarako agiririk egokiena.

3.- Azkenik, PROGRAMAZIOAK, (ICP)ren oinarrizko elementuez dihardu. Ikus dezagun dioguna:



Hezkuntzak, hezkuntz sistemetan jasorik, izakundeturiko hezkuntza egiteko onartzen diren agiriak dira. Giza taldearen kontzientzia metafisikoa (OTEIZA, 1975) ulertu eta ezagutzeko, sortutako ekinbideak dira. Euskal irakaskuntzak, maila horretako agiririk ez duenez, saiatu behar da horren muinaz jabetu eta ekinarazten. Hezkuntza, hezgarri bilakatzea banakoarengan kontzientzia sortaraztea da.

hezkuntza egiteko eratu eta antolatu behar da, gure gizarte senari, oraina eta geroa eskainiz. Guzti honetarako, J.M. Barandiaran, J. Oteiza eta J.M. Sánchez Carrión, "Txepetx"en lanak beste batzuen artean, jarraitu beharreko ildoak ditugu, euskal hezkuntzaren errealitatea eraiki ahal izateko.

Esandakoa, grafikoki honelaxe azal dezakegu:



Aurrez aurre, topatzen dugun arazoa hau da: zer egin daiteke euskal irakaskuntzatik emanak datozen edukinak, kulturalki, egokiak izan daitezkeen? Erantzuna, hemendik bilatu behar litzatekeela deritzagu: euskal curriculum egungo egoeran, Ikastetxeko Hezkuntz Proiektu agiria mamitzean datza eta horrek derrigorrezko bi printzipio urratzea eskatzen du:

1.- euskal kulturaren izatea, sustaiak eta oinarriak, beste kulturetatik bereiztu eta hezkuntzara egokitu. Gure kulturaren ikur nagusia den euskara,

Beraz, euskal curriculum, irakaskuntza gunetik, hau da ikastetxetik, gaur egun, zenbait eskola erakuntza ereduetatik, bakarrik, egin daiteke.... Bestalde guzti honen irakurketa baikorra hau litzateke: ikastetxe bateko "hezkuntz elkarteak" eta "irakaslegoak" dituzten eginkizunak ahalbidetzeko, garatu behar duten (OCD)aren aurreus-teetatik, Euskal Herriak, orohar, behar duten hezkuntzaz jabetzen lagunduz gain, zehazki heuren nahaspildurik dauden hezkuntz asmo eta ihardukera hobetzeko, baliogarria dela uste dugu.

BIBLIOGRAFIA:

- APALATEGI, J. (1993): Eusko Ikaskuntzaren XII.Kongresua, "Eskola erakuntza eta euskal irakaskuntza bidegurutzean"
- (1992): "Hezkuntzaren ebaluaketarako aurrebaldintzak", UZTARRO, giza eta gizarte zientzien aldizkaria, U.E.U., BILBO, (117-124. orr.),6.zbk.
- EHIE, Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, (1988): Ikastola, izaera etaegitura. (1991): Euskal Eskola
- EUSKO IKASKUNTZA, (1993): XII.Kongresua. Eusko Ikaskuntzak Hezkuntz Sistematan.
- BATZU, 1990: TANTAK aldizkaria hezkuntz aldizkaria. EHU. Donostia. 4zbk.
- BARBERA, ALBALAT, V. (1989): La planificación de los objetivos en el diseño curricular del centro. Escuela Española. Madrid. (13/19.orr.)
- OTEIZA, J. (1975) Quosque Tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca. Txertoa, San Sebastian.

Hezkuntz erreforma eta lurraldetasuna

■ Gurutze EZKURDIA - Euskal Herriko Unibertsitatea

▼ Estatua. Geografi gune garrantzitsua

Geografiaren ikuspuntutik estatuaren ezaugarri nabarmena lurraldea da. Estatuak espazio konkretua betetzen du. Ez dago lurralderik gabeko estaturik 1.

Estatua eraikitzen denean espazio geografiko-fisiko bati atxikia antolatzen da eta eraikitze prozesuaren historia egiten da. Antolaketa nolabaiteko jarraipena emateko ondorengoei irakasten zaie, hezkuntz sistemaren bidez. Sistema honi eutsi egiten zaio eta behar bada berri ere egiten da baina inoiz ere ez da kolokan edo zalantzan jartzen.

▼ Herri gutxiagotak

Burujabetzarik gabe agertzen dira munduan naziorik gehienak. Ezaugarri nabarmena botererik eza dutelarik. Haien lurraldea estaturen batek menperatutako lur eremua izaten da. Herri gutxiagotak dira.

Burujabetzarik gabeko herrietan indarrean dauden eskola sistemak beste errealitate edo estatuei dagozkie, hauen legediaren menpe baitaude. Hauxe dugu Hispaniar penintsula aldeko Euskal Herriaren egoera, hezkuntz sistema "autonomikoak" izan arren bere lurraldeetako eskoletan ezarri den curriculum estatu espainiarraren egokitzeta baino ez baita izan. Kontinente aldeko Euskal Herrian,



Gurutze EZKURDIA
Euskal Herriko Unibertsitatea

ordea, egoera askoz ere okerragoa da, ez baita onartzen Euskal Herria esistitzen denik ere.

▼ Gizarte zientziak eta Curriculum

Arestian esandakoari jarraiki, eta Estatuak hezkuntza sistema eta curriculum antolatzen dituzenez, mundua Estatu osaturik dagoela irakatsi digute eskolan. Bakoitzak bere lurraldea du eta mapen bidez erakusten digute bakoitzari dagokion lur zatia zein den.

Estatu bakoitzak ondotoxoz zaindu ditu Curriculumean hautatu behar diren gutxiengoak. Lurraldea eta honen

osaketa historikoa nahitaezkoa dela deritzo. Zeozelan agertu behar du bere izate arrazoia eta historian zehar izandako ibilbidea. Eskolan irakasten diren gizarte zientzien artean oso garrantzitsutzat jo ditu beti Geografia eta Historia.

Dena den, hautaketa honen arrazoinetan sakonduz, merezi du Fernández Enguitak dinoanari jarraitzea 2. Honen iritziz Geografia eta Historiaren protagonismoak zerikusi handia du Estatu nazionalen sorrerarekin, eta eskolan bete duten eginbeharrarekin. Eskola-ikasgai bezala Geografiak oso eginbide garrantzitsua jokatu eta jokatzen du. Bere eginbarra

ikaslearengan estatu-nazio kontzeptua finkatzea da, bide-nabar, lurraldearekin lotuz. Horrela, ikasleak estatuaren lurraldea eremu geografiko-fisikoan kokatzen du, mundu zabalaren barruan.

Bestalde historiak Estatuaren handitasuna eta ospea agertzen digu. Bere eginkizuna Estatua "nazio" batek osatzen duela frogatzea da, inguruko gizarte -eta barnean irentsi dituen herriengandik desberdina; giza-talde garatuago, modernoago eta hobea dela frogatzea eta sinestartzea. Berdin zaio estatuaren antolaketa zein den: bai erregimen demokratetan zein diktaduretan, bai kapitalista zein burokratikoetan, Geografia zein Historia, haien izate beharra bermatzeko erabiliak izan baitira.

Eta zeresanik ez, Historia Unibertsalean; Mediterraneo inguruko lehenik eta geroago Europakoa irakasten digute, beste gainontzeko herri eta kultur desberdinak ahaztuz. Inoiz, beste nonbaiteko historia edo geografia irakasten bada ere, beti izaten da potentzia edo botere bati lotutako lurraldearena, Europa kasuan-kasuko, eta ez herri edo nazioena.

Ikusi berri dugunez, Estatua, duen boterearen bidez status quo-ari eusten saiatzen da. Alde batetik barne egoera kontrolatzen du hezkuntz sistema eta curriculum antolatuz. Bestetik munduan agertzen diren hainbat errealitate

alboratuz edo estalduz, -herri, kultura, hizkuntza, talde, gatazka eta abar luzea.

▼ Euskal Lurraldea eta Curriculum

Espaniar Gobernuak aurrera eraman eta ezarritako Hezkuntz Erreforma hainbat aldaketa sor arazi ditu Hego Euskal Herriko hezkuntza ereduan. Curriculum berria, zer esanik ez, aurrera pausua izan da arlo askotan, baina euskaldunoi ez digu gauza handirik aldatzen. Alde batetik, orain arte frankismo denboretan ikasten genuena finkatu baitu ikasgai bezala; hots, "las provincias vascongadas" zirenak izen aldaketaz gaur Euskadiko Elkarte Autonomoa dugu. "El Reino de Navarra" zena, berriz, Nafarroako Foru Elkarte da eta ondorioz, egin diren diseinu autonomikoetan Nafarroa eta Euskadi (Araba, Bizkaia, Gipuzkoako lurraldeak) bananduta aurkezten dira, egoera politiko administratiboa finkatuz. Iparraldeko hiru lurraldeok ez dira aipatu ere egiten. Euskadiko Elkartean egin den egokitze curriculumarean zerau irakur genezake³:

"... Komenigarria da giza-banako bakoitza talde sozial zehatz batean kokatzen dela eta herentzia historiko zein identitate propio bat dituela kontuan hartzea. Hau dela eta, bere historiaren ezagupe-na eta bera partaide den taldearekiko eta talde-identitate loturen ezaguera, bai pertsonak eta bai gizarteak somatzen dituen premiak dira. Ikuspegi horretatik, gai horiek ezaguera-marko honen edukin-proposamenaren barne sartzen dira".

Nola uler dezakegu giza-banako bakoitza kultur



Haur hezkuntzan garrantzi handia du eskolak

herentzia eta identitate propioan heztea, kultur hori hedatzen den lurraldea osorik aipatu ere, aipatzen ez denean?. Nola identifikatuko da haurra Nafarroako euskaldunekin edo Lapurdikoekin esaterako, herri berbera osatzen dutela esaten ez bazaio? Euskaraz ezarriarren ere, argi dago errealitate politiko-administratiboak ez duela gure herri nortasuna onartzen.

Ideia honetan sakonduz, Diseinuak proposatzen duen lurralde hedadura:

"GIZAKIA, GIZARTE-IZAKIA

- Gizarte antolamendua
- Familia
- Ikastetxea
- Auzunea
- Herria
- Eskualdea
- Euskal Autonomi Elkarte
- Espainiako Estatu, autonomien estatua
- Europako Elkarte

Begi-bistan da planteamendu honetan ez dela Euskal Herria aipatu ere egiten; Eskualdetik Autonomi Elkartera pasatzen da eta horren ondoren Espainiako Estatuan dauden beste Komunitateak aztertzea gomendatzen da. Estatuaren antolaketa administratiboa ikasi ondoren Europako Estatuaren Elkarte ikastea gomendatuz eredu estatualari jarraipena ematen zaio.

Beste alde batetik Euskadiko Komunitateko Diseinuan onartu den izendapenekin ez gaude ados. Euskarazko alean Euskal Herria izenaren bidez lurralde osoa izendatzen da, baina egoera politikoa onartzen den neurrian nahastu egiten dira Euskadiko Elkarte Autonomoak duen lurraldea eta Euskal Herri osoarena. Erdal alean osteras Pais Vasco erabiltzen da hiru lurralde autonomoak izendatzeko. Izendapen honek indefinizio

nabaria agertzen du, zeren País Vasco Euskal Herriaren zein "Provincias Vascongadas" en lurraldeak izendatzen baititu argi utzi gabe noiz darabilen erreferentzi bata eta noiz bestea.

Frantziako partea osteras Pays Basque français bezala ezagutzen da. Hemen bizi den egoera desberdina dugu zenbait arlotan. Gure herriaren lurralde zati hau Estatu frantsesaren menpean aurkitzen da. Pays Basque français deritzotena Pyrénées Atlantiques Departamenduaren zati bat baino ez da, eta Euskal Herriaren zati honi ez zaio ez gizarte antolaketa, ez kultur-nortasunik, ez eta hizkuntzarik ere ezagutzen.

Gure arlora etorriaz, eskola eta Curriculumaren antolaketa frantziar estatuarenak direnez legedian oinarriturik ematen diren gomendioak Frantzia dute helburu. Seigarren, boskarren eta laugarren ikasturteetan zerau

gomendatzen da: seigarren ikasturtean ingurunea eta udal-herria "la Commune" deritzotena eta honen antolaketa politiko-administratiboak lantzen dira. Boskarrenean, lur-azalean agertzen diren estatuen mapa politikoa eta beraien mugak. Aurreko kurtsuan landu den udal-herriaz gain Departamenduaren antolaketa ikastera pasatzen da. Laugarrenean erregioa, Akitania, landuko da bereziki, honi dagokion gizarte antolaketa, kultur berezitasunak eta abar. Hirugarrenean azkenik, munduko estatuak aztertzen dira, eta hauen artean, Frantzia bereziki.

Bai Frantziako estatuak bai Espaniakoak, dagozkien curriculumetan egiten dituzten kontzeptuen hautaketa eta mailaketa, oso antzekoak direla nabarmentzen da. Frantziakoak Euskal Herria aipatu ere egiten ez duen bitartean Espainiakoak berriz, onartu egiten ditu nolabaiteko Autonomi Elkarte batzuk eta euskara hauen hizkuntza bezala onartzen du. Hala eta guztiz ere, egoera honek ikaslea nahaste-borraste izugarrian murgiltzen du gorago Euskadiko Autonomi Elkarte-an agertzen den Diseinuak aipaturiko asmoa indargabetuz. Zelanbait esateko ez du ikaslea talde sozial zehatzean kokatzen, ezta herentzia historiko, zein identitate propio bat duenik frogatzen. Kontraesan nabaria aurkitzen dugu.

▼ **Testu-liburuak eta Curriculumuma**

Testu-liburua eskolan darabilgun tresnarik garrantzitsuena dugu. Erabiliena izanik bertan agertzen den euskal lurralde kontzeptuaren planteamenduari gainbegirada eman diogu.

Egon badaude, desberdin-



Taldean iritziak azaltzea gustokoa dute

tasun nabariak Euskal Herrian euskaldunek, eta estatuan estaturako, osatutako materialen artean. Euskal Herrian egindakoak gehienetan, eta salbuespenak salbuespen, gure herriari dagokion lurraldea zaindu dute. Ez ordea, kanpoko editorialek egindako materialak. Hauetan nabarmen agertzen baita Estatuari egokitutako filosofian eraikitako materialak direla. Lurraldeari dagokionean Euskal Lurraldea osorik agertzen da ezaugarri fisikoak aztertzerakoan: lurraldearen hedapena, mendikate nagusiak, ibaiak, klimak, eguraldia eta abar. Baina gizarte edo ekonomi arloetan Elkarte Autonomoari dagozkion datuak erabiltzen dira, baita antolaketa politiko-

administratiboa aztertzerakoan ere. Agertzen den mezua zerau da; alde batetik, Euskal Herria, aintzinako herria, zaindu beharrekoa da eta bestetik gizarte modernoa, harekin zerikusirik ez duena, ikaslea hiri berri eta zehaztu gabeko batekin identifikatuz eta nola ez, antolaketa politiko-administratibo "berri" eta "modernoen", hau da, Autonomi Estatuarekin.

▼ **Euskal Curriculumaren beharrezana**

Egoera honen aurrean Euskal Curriculumuma beharrezko dugula uste dugu. Honen baitan Geografia eta Historiaren irakaskuntzak birplanteiatu beharrean aurkitzen

gara. Lehenik eta behin gure herriari dagokion lurraldea eta egoera kulturala eraikitzen duen curriculumuma, historikoki naziotzat hartzen gaituena alegia.

Bestalde munduaren ikuspegi desberdina hautatzen duen Curriculumuma, mundua estatuz osoturik ezezik, herriz osotua baitago; errealitatea eta historia herri-komunitate eta talde kultural desberdinek eraiki dugula eta gaur egun ere eraikitzeari darraiogula agertzen duen curriculumuma. Azken finean, euskaldunon artean hitzartutako curriculumuma, mundu aske eta zuzenago bat eraikitzeke oinarriak ezarriko lituzkeena.

Erreforma, Curriculuma eta kultura

■ M.B. BILBAO - Euskal Herriko Unibertsitatea

Hego Euskal herrian ezarri berri den irakaskuntza erreformak eztabaida ugari sortu izan du irakasle euskaldunon artean. Aipatu diren arazoan artean, galdera asko dago: zer den, haren benetako esanahia, euskaldunon kulturaren aipamen eza, eta abar luzea. Ondoko lerrook ere inguru horretan kokatzen dira.

“Eskolari dagokio ikasle goa gizarteko partaide aktibo eta kritiko izan dadin prestatzea”; ikasle goa bere gizataldean aktiboki parte hartuz bizi ahal izan dadin modu egokiz prestatzea. Hau da oro har, zentzu zabalean literatura pedagogikoan nahiz jendarte-an zabaldua dagoen ideia.

Gizaki, kritikoa, aktiboa, solidarioa, ...formazio lan guzti hori aurrera eraman dadin eskuhartze curricularra dugu; horren barne, curriculumak berak garrantzi handia hartzen duelarik. Baina eskolak, edozein hezkuntza eredu jarraituta ere, aukeraketa kulturala eskaintzen du, transmititzen duen curriculumean zehaztuz.

Curriculuma, (oinarri-oinarrian) beraz, ez da opzio bat baino; baina hautaketa egiterakoan beste batzuk alboratuta geratzen direla ahantzi ezinezkoa zaigu.

“...opzio politikoa dago, esanahi kultural eta soziala daukana, derrigorrezko irakaskuntzarako markatzen



Begoña Bilbao
Euskal Herriko Unibertsitatea

den edukina erabakitzerakoan”(GIMENO, 1988).

Curriculuma klabe psiko-pedagogikoetan biltzen eta egituratzen den hautaketa kulturala da, eta kultura hau da, ez besterik, eskolak eskaintzen duena. Nahikoa da, hezkuntza sistemaren maila eta kurtsoetako gaiak eta euren aurkibideak ikustea, zein den eskolak baloratu eta indartzen duen kultura egiaz-tatzeko. Bestela esanik, “Irakaskuntza sistemak, talde sozialen egitura berragertzen du, dominatzaile edo/eta nagusi den kultura, bakar eta benetakotzat joz”. LERE-

NA(1976), F. ENGUIA (1990). Gaur egun, curriculumaren erreforma dela eta, eskolak autonomia handiago lortuko duela, irakasleek euren ikasleekin lan egiteko askatasuna edukiko luketela..., honelako edo antzeko ideiak entzuteko aukera izan dugu. Baina, heldu da momentua, -hala uste dugu guk behintzat-, egoera “berria” aztertzeke, non gauden eta zer egin dezakegun denon artean argitu ahal izateko. Jakin badakigu bestalde, Erreforma curricularrak irakaskuntza sistema gizartearen beharrian batzuei erantzute-

ko planteatu eta burutzen direla eta ez, eskola sistema aldarazteko.

Jakina da gainera, (nahiz eta “ulertuek” ostantzekorik esan), erreformak arazo teknikoak ezezik arazo politiko-administratiboak ere ekarri dituela. Zeren, gutxienezko ezagupenak definitzeak eta markatzeak, eskolak indibiduo bakoitzari eskainiko dion aukeraketa kulturala markatzea adierazten baitu. Zein izango den derrigorrezko eredu kulturala erabakitzea, garrantzi handiko erabaki politikoa da, eredu hori izango delako gizarteak baliozko kulturatzat joko duena. Horrela eskolak, agintean dagoen gizataldearen kultura banatzaileak ditugu. Talde horrek baloratzen duen literatura irakatsiz, garailearen geografia eta historia edota euren ekonomia zaintzeko balio duen matematika azalduz.

Ondorioz, erreforma hori gorabehera, geunden tokian gaudela uste dut; aurrerantzean ere beste batzuen eredu kulturean eskolaratu behar izango ditugu umeak, geurea dugun kulturaren oinarritutako sisteman izan beharrean.

Herri bakoitzaren kultura, gizatalde horren izaera, sines-teak, portaerak, hizkuntza, historia, sinboloak...bere bizi-moduari zentzua ematen dion guztiak osotzen du. “Edozein kultura berezik jakintzen ondasuna esan nahi du, eta



BIBLIOGRAFIA

- APPLE, M. W. (1987): Educación y Poder. Paidós/MEC. Barcelona.
- FDEZ. ENGUIA, M. (1990): La escuela a exámen. Eudema. Madrid.
- GIMENO, J. (1988): El curriculum, una reflexión sobre la práctica. Morata. Madrid.
- HABERMAS, J. (1990): Pensamiento postmetafísico. Taurus. Madrid.
- LERENA, C. (1976): Escuela, ideología y clases sociales. Ariel. Barcelona.
- TORRES SANTOME, J. (1991): El curriculum oculto. Morata. Madrid.

ondasun horretatik ateratzen dituzte interpretazioak komunitatean partaide direnek, ezen horrela ulertzen baitute elkar munduan den zerbaitez” (HABERMAS, 1990). Ezin dugu ahaztu, bestalde, gizataldeek euren kultura zaintzen eta iraupena segurtatzeko behar diren ahaleginak egiten dituztela. Horretan oinarritzen delako talde beraren desagerpena edo iraupena. Eta eskolari eman zaio garrantzizko zeregina, lan honetan.

Gaur egun, gure eskoletan bizi ditugun “aldaketek”, erreformaren bidez ezarri zaizkigun diseinu curricularretan biltzen direnak adib., ez dute isladatzen inondik inoera ere euskaldunon kultura eta izaerarik. Hegoaldeko eskoletan ditugun oinarrizko Diseinu Curricularretan gutxienezko edukina markatuta ematen zaigu, eta derrigorrezkoa da eskola sistematik pasatu behar duten guztientzat.

Eskoletan lantzen diren edukin, balore, trebetasunen bidez integratzen ditugu ume eta gazteak komunitatean. Baina, momentu honetan, gurea ez den eskolaren bidez, eta gurea ez den kultura eremuan.

Sarritan esaten zaigu, euskara curriculumean sartuta dagoelako, hor daukagula gure parte. Baina ondo bezain hobeto dakigu euskaldun sentitzen garenok ez dela nahikoa; eta gure izaera, gure kultura, aurrerantzean ere kultura gutxiagotua izanez jarraituko dela, aipatzen ez den horietarikoa.

Ikasle, irakasle, pedagogo, guraso, hezkuntz komunitate honetako partaide garenok beste talde sozialen laguntzaz, burruka kulturala planteatu beharrean gaude. Arestian aipatu den moduan, eskolak zer esan handiak ditu esparru horretan eta.


Eusko Ikaskuntzak Hezkuntz sarean

Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua

■ Rafael LOPEZ ATXURRA

Erreformaren testu ofizialek Curriculumaz mintzaterakoan eskaintzen duten definizioa zera da: "Komunitate baten Hezkuntz sarearen proiektu sozial eta kultural propioaren adierazpena da" eta oraingo honetan Euskal Herriari edota Vaskoniari dagokio.

"Eusko Ikaskuntzak Hezkuntz Sarean" Kongresuaren izenburuak adierazten duenez "Eusko Ikasketak" bere zentzu zabalenean hartu nahi dira, hau da, aipatu kultur proiektu soziala osotzen duten edukin curriculumaren heterogeneotasuna kontutan harturik. Hitz batez, ez dugu abiatu nahi soilki aipatu ikasketen definizio murrizkor, esentzialista edota, disziplinarretik. Balizko eskema horren eza-gutza mugatuak ez lirakeelako aski pertsona eskolatuak behar duen adinako kultur jakinduria Euskal Herrian bizi eta Euskal Herria bera ulertu ahal izateko zeren eta, beronek gizarte konplexu, dinamikoa eta mundu orokor eta interdependentean txertaturik baitago. Horrek, jakintza berrien, gaitasun eta esperientzia berrietarantzko etengabeko irekitasunera garamatza. XXI mende atarian eusko ikaskuntzen kontzeptu eta gaien hodeiertza hedatu eta zabaldu egin da gure egungo eskenatokiko kultur elementu propioak eta gure etorkizuneko



Rafael Lopez Atxurra

aiduru guztiak etengabekiro ezarriz. Ezagupen area desberdinen gurutzagunean sortzen diren arlo disziplinar eta metodologiko berriei dagokie beronen analisia. Gaur egun eusko ikaskuntzak ez dira Euskal Herriko ohizko kulturara eta antzinako eskenatoki-

ko gizakiaren ikerketetara mugatzen. Esan beharrik ere ez dago gai hori bera aberastu eta hedatu egiten dela zientzia berrien eranspenari, metodologiei eta baliabide berriei esker. Eusko ikasketen definizioa hurbildu beharko bage- nu, definizio horrek, izaera

desberdineko jakintza guztiak aipatu beharko lituzke eta horretaz gain, euskal gizartearen etengabeko hedaketak sortarazten dituen erronka eta arazoei erantzuteko behar diren beste maila desberdinetan artikulatzen diren edozein jakintza ere aipatu beharko lituzkeela iruditzen zait.

Euskal Herria osotzen duten lurralde desberdinetako erakundearen hezkuntz sistemek errealitate sozialean edota, ezagutza arlo desberdinetan gertaturiko eraldakuntza sail hauek jasotzez gain partaide ere badira, eta ondorioz, aipatu sistema barnean Herriaren, bere kultura eta arazoketako somaketa konplexuago eta irekiagoa planteatzen da. E.A.E.ko eta N.F.K.ko Oinarrizko Diseinu Curricularretan planteaturiko edukin kulturek egungo eraldaketa guztiok jasotzen dituzte, bai euskal sistema kulturaren barnean gertaturikoak eta baita eskola azpi-sistema kulturean edota hezgarrian gertaturikoak ere.

Eta horrela, Kongresuaren

Gaur egun eusko ikaskuntzak ez dira Euskal Herriko ohizko kulturara eta antzinako eskenatokiko gizakiaren ikerketetara mugatzen. Gai hori bera aberastu eta hedatu egiten da zientzia berrien eranspenari esker.



Haurrak lan egiteko prest

egitura zientifikoa arestian aipaturiko helburuetatik abiatu da. Beti ere, heziketa arloan gertatzen ari diren aldaketa orokorrak kontutan izanik, bai teorian eta baita praktika arloan ere egin diren ekarpen guztiak ahaztu gabetanik. Horrela bada, ezagutza arloan eta inguru sozial desberdinetan gertaturiko azken transformazio guztien hausnartze, sakontze eta laburbiltze gain, curriculumaren teoriatik datorkigun hezkuntz sarean duen eraginaz arituko gara. Hezkuntz sarearen ulertzeko modu hau, curriculumaren lau iturburutan oinarriturik (soziala, epistemologikoa, psikologikoa eta pedagogikoa) izan da txostenen komunikazioen eta gai-azalpen edo erakusketen ardatza.

Egungo gizartearen kon-

plexu eta eguneroko arazoak ulertzeko baliagarri izango litzatekeen pentsakera orokorraren beharra izango litzateke beste parametro aipagarria, horrela, disziplina klasikoek errealitateari damaioten ikuspuntu zatitua gainditua gertuko litzatekeelarik. Gero mahai-inguruetan ikuspuntu berri hauen ekarpenak egunerokotasun hezgarrian eztabaidatuko dira, non ekintza, bideratzen duten errealitatean

planteaturiko arazoak direla medio, ezagupen kritiko eta aktiboruntz, "zehar lerroen" bitartez arlo guztien curriculumera.

Txosten, mahai-inguru, komunikazio eta gai-azalpenei esker irakasleek jakin eta ezagutu ahal izango dituzte:

- Gure kultur inguruetik Curriculumaren iturburu desberdinek eskaintzen dizkiguten hausnarketa orokorrak.

- Egungo erreformak jasotzen dituen zenbait ezagupen edo edukin aipagarrienen egoera.

- Gaur egun dauden irakas-materiale eta baliabideak (materiale curricularrak, unitate didaktikoak,...)

- Erreformat jasotzen dituen zenbait berrikuntza didaktikoen egoera edota, ebaluazioa.

Elementu guzti hauek lan ildo berriak eskainiko dizkigute Hezkuntz sarean gabiltzanoi.

Hitz batez, Euskal Herriko hezkuntz sarearen osotasunean hartu nahirik hausnarketa eta komunikazio bidearen ahaleginetan egindako Kongresua izango da.

Euskal Herriko hezkuntz sarearen osotasunean hartu nahirik hausnarketa eta komunikazio bidearen ahaleginetan egindako Kongresua izango da.


Pedagogi berrikuntza versus erreforma?

■ Abel ARIZNABARRETA-Irakasleen prestakuntza arduraduna

▼ Erreformak

Erreformen aurrean erakusten dugun eszeptizismoa argitzen duen arrazoi historikorik badago; batez ere, hauek, Administrazioak proposatuta, honi "atereak" izan gabe datozenean, eta, are gehiago, hezkuntzaren errefor-maz ari garenean: hain urruti geratzen ez zaizkigun 70. eta 80. hamarkadetako saioak datozkigu burura. Erreformatzeak aldaketak egitea esan nahi du eta honek entzute moduko bat ematen dio administrazioari iritzi publikoaren aurrean, hezkuntzaren zerbitzua hobetzera bideraturiko neurri diskretuen eta etengabe aplikatzen ari diren politika batek ematen diona baino gehiago bederen. Hezkuntza-politikako erreformak bizi ohi dira hezkuntza-sistemako baldintzak hobetzera doan eguneroko politikaren berrikuntza eta eguneratze-sistematik ezarekin batera eta sarri gainera berau ordezkatzera datoz; eskuharmen tautamurgiko bezala agertzen dira, besterik ezean behin eta berriro oratzen diogun erritua-ren erabilera bezala. Sarritan erreforma-proposamenek zerikusi gutxi izan ohi dute eskolako eguneroko bizitzarekin eta bai, ordea, industri gizarte garaikideei dagozkien zilegitzapen-prozesuekin.

Erreformen hizkuntzan ideal positiboak aintzatetsi arren eta adostasuna erraz eman ahal zaizkien printzipioen deklarazioak gehitu, sarri



Abel Ariznabarreta
Irakasleen prestakuntza arduraduna

askotan zail gertatzen da deklarazio horietan ideal jakin batzuen inguruko kontsentsua eragitetik harunzko meritua bilatzen. Berrikuntzaren kontzeptzio honek kostu txikia du eta erretorika hutsa zabaltzeko behar duenetik gorako baliabide gutxi behar ditu. Ideia/indar batzuen inguruan kontsentsu moduko bat sor-

tzea bilatzen da; honek beneratzen du garrantzia, baina taktika horretatik ez da ateratzen errealitatea aldatuko denik.

Antropologiaren ikuspuntutik, erreforma-planteamenduek, kasu honetan hezkuntza-sistemarenek, hezkuntzak gizarte-bilbapenean jokatzen duen papera egiaztatzeko balio digute. Era berean, eza-

rri nahi diren programen aurrean sistemak oro har eta bere osagaiek duten portaeraren eta hezkuntza-sistemaren beraren errealitatea ezagutzeko balio handiko zioa izan daitezke. Azken batean, sistemaren funtzionamendu "normalari" egiten zaion probokazio modukoa dira, bere errealitatea eta dinamika begien bistan jartzeko aukera ematen baitute.

Oraingo erreforma, hezkuntza-sistemaren barne-kultura aldatzea zuzendurik balego bezala aurkeztu zaigu: esan liteke izaera teknikoa duela beste ezer baino gehiago. Alderdi teknikoetan ateratzen den zaratotsak sarri askotan ahuleziak justifikatzeko edo hezkuntzaren kanposistemarekiko harremanetan eman beharreko aldaketari buruzko proposamenak ezartzeko balio du (gizartearentzako kultur proiektu berrietan, esate baterako); horiek tekniko hutsa baino gehiago esangura politikoa duen erreforma bati dagozkion gauzak dira, eta honek, agian, beste jokorau batzuk eskatuko zituzkeen.

Oraingo hezkuntza-erre-

Sarritan erreforma-proposamenek zerikusi gutxi izan ohi dute eskolako eguneroko bizitzarekin eta bai, ordea, industri gizarte garaikideei dagozkien zilegitzapen-prozesuekin.

formen egitura-seinale bat, bere justifikazioa kalitate hobearen bilaketan oinarritzen dela da. Kontraesanez, krisi hedakorren eta baliabide-eskasiako aldietan, kalitatera jotzen da, hezkuntza-erreforma eta politikak justifikatzeko konsigna gisa. Baina "kalitatetzat" zer ulertzen den eta zeren bidez soma daitekeen arazoari dagokionez, desadostasuna da nagusi, jomuga horretan asmo eta interes

tiboekin. Beraz, "hezkuntza-erreforma" eta "pedagogi berrikuntza" hitzen artean bereiziko genuke; hala ere, behin bereiztea lortuz gero, bien arteko egiazko elkarharremanaren aldeko apostua egiten dugu, hezkuntza-sistemaren aldaketa formal bat emateko ahalbiderik egon ez dadin, batera hobekuntza erreal bat eman gabe. Alderantziz ordea, erreforma formal baten beharrik gabe ere eman daite-

horrenbestez, jarduera pedagogikoa hobetuz. "Kalitatezko hezkuntza" eta "pedagogi berrikuntza" elkarrekin zeharo loturik dauden bi kontzeptu dira; era berean "hezkuntza-sistemaren erreforma", eskola-sistemaren egituraren eta funtzionamenduan, hezkuntzaren hobekuntza lortzera bideraturik dagoen aldaketa-prozesu bat bezala definienezake.

Honek esan gura du, ez bakarrik hezkuntzaren dimentsio eta alderdi jakin batzuetan lortu nahi diren aldeketen zer eta zertarakoei buruzko erreforma baliotsu, zuzeneko eta oinarrituak diseinatu behar direla, baizik eta halaber aldaketa-proiektuak burutu eta bere garapenean hezkuntza-hobekuntza bultzatzeko behar diren "nola" haiek (prozesuak, estrategiak, baldintzak, baliabideak, euskarriak, e.a.) ere sasoiz sustatu behar direla.

Beraz, "aldatzea aldatzearen" hori, ezin da defendatu hezkuntzari dagokionez bederen, nahiz eta hori ona eta noraezekoa dela sinestaraztera bultzatzen duten balioak garrantzitsuentzat dituen gizarte eta ingurugiro-kultura batean bizi. Azken batean, hezkuntza-aldaketa bat ezin da justifikatu hezkuntzaren

errealitatea zentzu batean aldatu nahi izatearen, eta lortzearen, arabera, balizko aldakuntza hori hoberako den heinean baino.

Gainera uste dugu aldaketari buruzko gogoetari hobekuntza-irizpidea eransteak eraman behar gaituela ez gertaera puntual bat, adibidez erreforma baten diseinua eta bera ezartzeko politika eta administrazio-erabakia, dela pentsatzera, baizik eta hezkuntza gero eta gehiago hobetzera doan jomugarekin konprometaturiko prozesu etengabe, iraunkor eta sistematiko bat dela.

▼ Irakaskuntzaren kalitateari buruz

Irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzaz ari izan gara. LOGSEk berak, bere Aitzinsolasean dio ezen "irakaskuntzaren kalitatea ziurtatzea, etorkizuneko hezkuntzaren erronka nagusienetarikoa bat dela, eta bera lortzea lehen mailako helburua dela edozein erreforma-prozesutan". Baina nola ulertu behar da "kalitate" hori?, nola balioesten dugu?, nola egin behar ditugu berari buruzko gogoe-tak?. Uste dugu irakaskuntzaren kalitateari buruz hitz egitea eta hurrengo galdera hauek egitea gauza bera direla: Nolako eskola-moeta dugu eta nahi dugu?, nolako ezugutza-moeta interesatzen zaigu?, zer espero dugu eskolatik?, zer espero dugu irakatsi/eskolatua den pertsonarengandik eta hezia denarengandik?, zeint balio nahi ditugu ikasleenganatu?, e.a. Galdera hauei ematen dizkiegun erantzunak joango dira irakaskuntzaren kalitateaz dugun proiektua definituz.

Aldaketarako aukera kritiko bat planteatzen ari gara;

Kalitatetzat" zer ulertzen den eta zeren bidez soma daitekeen arazoari dagokionez, desadostasuna da nagusi, asmo eta intereskontrajarriak nahasteraino

nahikoa aurkako eta kontrajarriak bat egin eta nahasteraino. Gaur gizarte-gastuan bizi dugun krisia bezalako aldietan, kalitateari buruzko diskurtsoak, esangura gehien bat efizientistetan eta baliabide mugatuak hobeto erabiltzea eskatuko duten argudio teknikoetan geratzeko arriskua du.

▼ Erreforma eta pedagogi berrikuntzak

Interesgarria deritzogu "erreforma" eta "berrikuntza" kontzeptuak desberdintzea, hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza prozesuan duten esangura argitzeko. Lehenengoak hezkuntza-sistemako lege, zuzenbide edo administrazio-aldaketekin du zerikusia. Bigarrenak, aldiz, irakaskuntza/ikaskuntza bezala definitutako egoeretan, hala ikerketa/jardueran oinarritutako hezkuntza-ereduari begira nola irakasleak bere lanari buruz duen jarrerari begira, ematen diren aldaketa erreal eta posi-

ke pedagogi berrikuntza prozesurik: azken hamar urteotan irakaskuntza elebiduna ezartzea izan da Euskal Autonomi Elkartearen hezkuntza-sistemaren berrikuntza nagusienaren eragile, zeren eskola-elkartek (irakasleek, administrazioak, gurasoek,...) premia berriei aurre egiteko beharri-zana ekarri baitu, hezkuntza-sistema elebidunaren eskakizunei egokituriko estrategia eta baliabide berriak aztertuz eta praktikan jarritz, eta



Gelako txokoak antolatuta egotea beharrezkoa da

kalitate honen lorpenak, era berean, hezkuntzako protagonista desberdinak konprometatzen ditu. Horrela, administrazioari dagokio:

- Bitarteko nahikoz zuzkitzea, eta horrek, agian, baliabideen gehikuntza nabari bat eskatuko du.
- Botere publikoek hezkuntza-administrazio eraginkor bat izango dutela ziurtatzea.
- Gizartearen kultur, politika eta ekonomi garapenarekin bat datozen gizarte-eskariei erantzutea.
- Irakaslegoaren etengabeko prestakuntzari laguntza ematea, bere finkotasunaren alde egin eta irakasle-funtzioaren gizarte-begirunean laguntzaile izatea.
- Didaktika-baliabideak gehitu eta hobetzea.
- Eskola-lanak errazten dituzten hezkuntza-tokiak girotzea.
- Irakasle/ikasle proportzio arrazional batzuk bermatzea.

Bere aldetik, ikastetxe edota eskola-elkarte osoari dagokio:

- Ikastetxearen antolamendua hobetzea.
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, ikastetxeko gizarte eta kultur testuingurura moldatuta landu eta esplizitatzeari.
- Curriculumaren artikulazio koherente bat ikaslearen eskolatzeprosesu osoan zehar xedatu eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan esplizitatzeari.
- Hala irakaslanen nola eskolaz kanpoko ekin-tzen planifikazio eta garapen koherenteak



Guztiek noizbehinka partehartzea gela barruan atsegin zaie

burutzea.

- Ikasleen ebaluaketa hezgarria egitea eta halaber irakaskuntza /ikaskuntza prozesuarena ere.
- Eskola-integrazioa bideraturiko jarduerak agertzea.
- Orientabide psikopedagogiko trebea bermatzea.
- Pedagogi berriztapen eta ikerketako jarduerak egitea.
- Ikastetxearen proiektzio koherente eta serioa izatea kanpoari begira.
- Eskola-elkartea osatzen duten lagun guztien eskuharmen aktibo, kritikoa eta dinamikoa bultzatzea.

Aldaketarako aukera kritikoak azken batean berarekin darama ez bakarrik ikastetxeek, irakasleek eta eskola-elkartek oro har, administrazioak proposaturiko aldaketak onartzea, baizik eta haien

beren esku hartzea berreraikitzeke erantzukizuna eta ahalmena, errealitatearen beraren eta bere testuinguruaren analisi kritikoan oinarrituta (non gaude?, nor gara?), eta testuinguru partikularretan eraldatua izan behar den hura (zer nahi dugu?, aurrera norantza nahi dugu egin?, eta beraz, nola antolatuko gara?), geuk definitu ditugun gizarte-balioen (Ikastetxearen Hezkuntz Proiektua), hots, geure nortasunaren seinaleen argira alda daitezten, ez bakarrik berrikuntza-ordezkaritzak baizik eta konpromezuak eta ahalmenak hartzeko aukera eginda.

Gaur inork eztabaidatzen ez duen kontsentsurik badago, kontsentsu hori datza uste izatean aipatu hobekuntza hau, kalitatezko, behar den moduan hautatu eta profesionalnalki motibaturiko irakasleok batetik pasatzen dela, eta halaber lankideekin taldean eramandako praktikan etengabe ebaluatu eta hobetzen den

irakasletzan aritzeko lan-baldintzak eta beharrezko diren laguntza material eta baliabideak izatetik ere. Beste alde batetik, irakaskuntzaren kalitatea gehitzearen lorpena erreforma batek jadesteko beste faktore/gako bat, proposatzen diren aldaketetan eskola-elkarte osoa inplikatzeari da. Lehenengoaz arituko gara hemen; ez besteari garrantzia kentzeagatik, aitzitik, duen horrexegatik artikulu honek eskaini diezaiokeen luze-zabalerara baino handiagoa merezi duelako.

▼ Irakas profesionaltasunari buruz

Bokazioan oinarritutako justifikazioaren fasea, irakaslearen kasuan hain erabilia izan den hori, behin gainditurik eta urratsa "profesionaltasunera" eman beharko litzatekeela uste denean, irakaslearen figura hezkuntzak bizi duen krisi orokorraren ondo-

rio den krisi-egoera batean murgilduta dago. Irakasle goa, irakaskuntzari ukitzen dion faktore-multzoaren emaitza den bidegurutze handi baten aurrean dago:

- Hasierako prestakuntzako akatsak.
- Irakasle-funtzioaren gizarte-baliogalera.
- Gizarteak eskolari kontraesan handiz egiten dizkion eskakizun esplizitu eta inplizituak, irakasleen lanbide-eginkizunaren kritika eta uxarpenekin batera.
- Teknologian eta hezkuntza-zientzietan egindako aurrerapenak.
- Erreformaren eskakizun berriak, eta horiek sortzen dioten segurtasunik eza.
- Eskola-porrotaren finkotasuna, hezkuntza-sistema beraren egitura-zati bat bailitzan, irakasle goaren, oro har, atsekabe handiak sortzen dituena.

a) Irakasle-eredua

Egoera horretan, irakasle-eredu berri bat planteatzera datorkigu erreforma. Elkarren segidako zehaztapenen bidez (ikastetxea - gela - gizabana-koa) itxi behar den curriculum ireki bat izanda, irakasle goaren papera eta irakas-estiloa guztiz desberdinak izan behar dira ikastetxeen autonomian oinarritutako sistema batean, hezkuntza-administrazioak erabakitzen duenaren guztiz menpe dagoen sistema arauzkotu batean egotea espero zenetik.

Curriculumaren azken zehaztapena egiteko autonomia eta erantzukizuna, hala bere definizioan, nola burutzapenean eta ebaluaketan, irakasle goaren esku dago. Autonomia hau, guztiek erres-

petatu behar duten Proiektu komun bati loturik egoteak baldintzaturik dago eta irakasle-taldearen baitako lanean koordinatuta burutu behar da. Irakasle-eredu honek, gaitasun bereziak eskatzen ditu, eta halaber zientzi, teknologi eta didaktika-izaerako jakintza batzuk ere; prestakuntza-jarduerak, bada, behar diren neurrian erantzun beharko diete. Baina, batez ere, irakaskuntza-eredu berriak eskatzen dituen jarrerak dituela pentsatzen da.

Irakasle berri honi dagozkion jarrerak, eta euron euskarri den pentsamoldea (ideia-multzoa), hurrengo hauek osatzen dute nagusiki:

- **Praktika bera analizatzeko jarrera eta gaitasuna**, irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuko premientzat baliagarri diren alderdiak eta aldatu behar direnak praktika horretan aurkitzeko adina, eta halaber ikasle goetik eta eskola-tesuingurutik eratorritako eskabideak ere.

- **Hezkuntza berritzeko jarrera eta gaitasuna**, hezkuntza-premietara eta proposaturiko helburuetara egokitutako erantzunak bilatzeko etengabeko prozesu baten bidez.

Irakasle goa, irakaskuntzari ukitzen dion faktore-multzoaren emaitza den bidegurutze handi baten aurrean dago

- **Talde-lanerako jarrera**, proiektu amankomun baterako adostasun-oinarriak aurkitzen dakiena, bakoitzak, gaintzeko lankideekin batera, jarduera koherente bat garatzen dezan proiektu horretan, hala



Joku manipulatiiboak tart...

sinkroniaz nola diakroniaz; hemen irakasle goa kohezionatu baten beharra dago, ikastetxe-ko jardueran inplikatu, erabakietan partaide eta prozesu eta emaitzetan ardurakide dena.

- **Ikasle goa eta bere tesuingurura egokitu eta orientatzeko jarrera**, irakas-

b) Irakasletzan ari den irakasle goaren prestakuntza-eredua

Euskal Autonomi Elkarte-ko irakasle goaren ezaugarrietako bat kolektibo oso gaztea izatea da: 1987-88 ikasturteko datuen arabera, irakasle goaren %71,5a 40 urtez azpitik zegoen, eta %12,5a bakarrik zen 50 urtetik gorakoa. Irakasletzan ari den irakasle goaren prestakuntza ereduari dagokion arreta eskaintzea eskatzen duten datuak dirudite, urte askotan beren gain izango duten irakaskuntza lana kontutan hartzen bada bederen.

Irakasle goaren prestakuntza-ereduak, irakaskuntzaren beraren ikuskerarekin koherentzian daude eta honela sailkatzen dira:

* **Eredu tekniko**a, batez ere ikaskuntza-gai diren zientzietan begira dagoena eta, beraz, zientzia horiek eta



erabili beharrekoak dira

beren azken formulazioak ezagutzen dituen irakaslegoaren premia duena.

* **Eredu praktikoa**, batez ere irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuari begira dagoena eta, beraz, didaktika-alderdiei eta aipatu prozesu horretan sortzen diren egoera eta premien erantzunei.

* **Eredu kritikoa**, batez ere hezkuntzaren subjektu eta objektu den pertsonari begira dagoena eta, beraz, komunikatzen duena eta komunikazio horrek dituen prozesuak,

komunikazio hori hartzen duen ikaslearen ezaugarrien araberrako testuinguruaren baitan analizatzea ahalbidetzen dioten jarrerak edukitzeko gai den irakasleagoa behar duena.

Hiru ereduak dituzte irakasletzan ari den irakaslegoaren prestakuntza-prozesuan beharrezko diren elementuak. Baina hezkuntzaren eta irakaslegoaren zereginean egiazko aldaketa ekar dezakeena, eredu kritikoa da. Honek esan nahi du ezen irakasletzan ari

den irakaslegoaren prestakuntzak, zientzi eta didaktika-gaurkotzerako ere balio behar duen arren, bi horiek irakaslanaren xede eta bitarteko elementuak direlako, hala ere nagusiki irakaslegoak betetzea espero den paper hori bereganatzeko jarrera-aldaketan jarri behar duela bere ahalgin nagusia.

Jarrera-aldaketa, gauza guztiak bezala, barne erakuntza-prozesu baten emaitza den ikaskuntza bat besterik ez da. Beste edozein eraiketa-ikaskuntza bezala, bere abiapuntua irakaslegoaren alde aurreko jarrera eta ideietan, eta bere esperientzia pertsonalean izan beharko du, eta, informazio berri bati buruzko kanpo eta barne jardueren baten bidez hasieran izan duen jarrera eta pentsamoldea alda dezan bilatuko da. Prestakuntzaren xede nagusiak (jarrera-aldaketa) eta hori lortzeko behar den prozesuak (konstruktibismoa), prestakuntza-jardueren edukia baldintzatzen dute, eta metodoa, hau da, partehartzaileekin egitea proposatzen den jardueramultzoa, gehiago oraindik. Metodoaren alderdi garrantzitsu batek partehartzaileen irakas-praktika berarekiko konexioa izan behar du.

c) Prestakuntza honen ezaugarriak

Aurrean egindako gogorpenak abiapuntutzat hartuta, argi dagoela dirudi irakas-

kuntzaren eta irakas-profesionaltasunaren hobekuntza kua-litatiboa bermatzeko tresnarik egokiena ikastetxeetan gauzatu-tako etengabeko prestakuntza aurrerakor eta orokortu dela. Prestakuntza honen ezaugarri nagusitzat hurrengo hauek aipa daitezke:

- Irakasle - taldeei zuzenduta egotea eta ez irakasleei banaka, irakaslana talde-lan bezala ulertuta egin den planteamenduarekin koherentzian.

- Ardatza, irakaslanaren arazotera zehatz eta testuinguratuan izatea. Honek esan nahi du arazok ezagutu eta esplizitatu behar direla prestakuntza-jarduerak planifikatu aurreko urrats bezala, irakasle-goari paper protagonista eman behar zaiola prestakuntza-jarduerak diseinatu eta burutzeko orduan eta planteamendu estereotipatuak eta kanpotik landuak ekidin behar direla prestakuntza-egoeren hautabide bezala.

- Irakas-ordutegi barruan egitea, horixe delako irakaslego osoaren eskuhartzea eta behar den iraunkortasuna bermatzeko modu bakarra. Beste alde batetik, honek esan nahi du onartu egiten dela etengabeko prestakuntza irakaslanean ez dela luxuzko arazo bat edo banakako premia bat, irakaslanean kalitate egokia bermatzeko funtsezko lanbide-tresna baino; azken batean, irakasle-funtziotik aska ezinezko alderdia, hain zuzen ere.

Ikuspuntu honetatik ikas-

Etengabeko prestakuntzaren ezaugarri nagusia, irakasle-taldeei zuzenduta egotea da eta ez irakasleei banaka, irakaslana talde-lan bezala ulertuta egin den planteamenduarekin koherentzian



tetxeetako etengabeko prestakuntza, laguntza planifikatuzat ulertu beharko litzateke, eta bere xede nagusia, ikastetxeko taldeek hezkuntza-lanei buruz egiten duten gogoeta eta lanketa, autonomia-mailarik handiena emanda bultzatzea dela. Pentsakera honetan kanpoko prestatzaileen eskuharmena era malguan ikusi behar da zeren beti ez baita beharrezko, eta betetzen duen papera taldeen eskariaren eta onarpenaren menpe egon behar du, prestatzaileak beregandu dituen zereginak taldeari berari azken finean transferitzea bermatuz, baina horrek prestakuntza-prozesuaren

amaiera suposatu gabe; alderantziz baino, horixe baita taldea bere prestakuntza kudeatzeko gero eta gaitasun gehiago hartuz doala erakusten duen adierazgarria.

Eta amaitzeko azpimarratu nahi dugu erreformak planteatzen duen aldaketa-prozesuan egile erabakiorrena, azken batean, irakaslekoa dela esaten horrenbesteko enfasia jartzen dugunean ez garela esaten ari hezkuntzako aldaketak "irakasleen lepotik" egin behar direnik, "irakasleen bidez" baino, bere lanbide eta pertsona-gaitasun eta berreraiketa lortuta.

BIBLIOGRAFIA:

BARCELO, F. (1989): "Erreforma eta irakaslegoaren prestakuntza". *Jakin*, 53.zk.1989ko Uztaila/Abuztua.

DEL CARMEN, L. eta beste (1990): *El curriculum en el centro educativo*. ICE/Horsori. Barcelona.

DOMENECH, J.; VIÑAS, J.(koord.) (1992): "Cien medidas para la escuela pública". *Cuadernos de Pedagogía*, 205.zk. 1992ko Uztaila/Abuztua.

ESCUADERO, J.M.; LOPEZ, J. (koord.) (1992): *Los desafíos de las reformas escolares. Cambio educativo y formación para el cambio*. Arquetipo. Sevilla.

GIMENO, J. (1992): "Reformas educativas. Utopía, retórica y práctica". *Cuadernos de Pedagogía*, 209.zk. 1992ko Abendua.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1989): *Irakaslegoaren Etengabeko Prestakuntza-Plana (IEPP)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1993): *PEI/PIF. Erreformatarako Ikastetxeko Prestakuntza Egitamu Intentsiboa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

SANCHO, J.M. (1988): "La formación en el centro". *Cuadernos de Pedagogía*, 161.zk. 1988ko Uztaila/Abuztua.



Euskal Eskola, Elebindutzeko eskola?

■ Xabier ISASI eta Lore ERRIONDO

Hizkuntza garapenean eragiten duten faktoreak, bi multzotan bana ditzakegu oso modu gordinetan: norbanakoaren mailakoak eta gizarte mailakoak. Norbanakoari dagozkion faktoreak inguruetik erabat isolatzerik ez bada ere, oro har, psikologia mailakoak direla esan dezakegu. Bestalde, gizarteak definitzen du hizkuntza egoera eta garapenaren abiaburua; era berean, aipatu hizkuntza garapen hori, alderdi formaletan arautu eta mugatzen du.

Hizkuntza bakarreko herrietan hizkuntzarekiko araudi edo legeetan antzeman daitekeen ezaugarriak nabarmena, araudi edota legerik eza da; zori-neko herri elebidunetan, edo zehatzago, hizkuntzen arteko ukipen egoeran bizi

diren herrietan aitzitik, hizkuntzarekiko araudi eta legeak ugari izan ohi dira. Lege horiek, esan behar da, egoera gutxiagotuan aurkitzen den hizkuntzari dagozkio gehienetan. Gure kasuan, euskara berreskurabidean jarri eta hizkuntz normalkuntza lortzea izango litzateke lege horien helburua.

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren eremuetan euskal curriculum delakoaren azterketarako abiaburua beraz, ezinbestean, herri honek bizi duen hizkuntza egoeran jarri beharko dugu gure aburuz. Irakaskuntzan hezkuntz-hizkuntzak dakarren zama ez dago bazterrean uzterik, are gutxiago euskal curriculum delakoa aztertu nahi dugunean.

Euskaraz ez den beste hizkuntzan ba ote dago euskal curriculum garatzerik? Euskal curriculum, erdal curriculum edo curriculum elebiduna?

Legearen ikuspegia kontutan harturik, euskal herrietan lege egoerak administrazio eremu desberdinetan definitzen dira. Egoera guztien artean garrantuena eta besteen aintzindaria Euskal Autonomi Elkartekoa da. Hori horrela, Ipar Euskal Herriko egoeraz zeozer aipatzekotan, araudi eza nabarmendu behar dugu; Nafarrokoarenaz bere aldetik, Euskararen Legea edo Ley del Vasconce delakoak arautzen duena ez besterik. Euskal Autonomi Elkartearen araudiak besteenetan duen garrantziaz jabeturik, beronen azterketari lotuko

gatzaizkio batipat. Horrek ez du esan nahi gainontzeko euskal herrietan leudekeen berezko araudiak (daudenetan), garrantzizkoak ez direnik.

Egun, honetan eragina izan dezaketen lege edo arau desberdinen kronologiari atxekiz, aipatu lehenik eta behin 1979. urtean sartzen dela euskara irakaskuntza sisteman Elebitasun Dekretuaren bitartez. Halaz ere, bereziki zaindu zen gaztelaniak euskararen erasorik edo aurkako eraginik jaso ez zezan. Beraz, euskararena eskubide mailan planteiatzen den bitartean, gaztelararena bete beharreakoa da, nahiz eta egun, Kataluniakoa kasu, gaztelera ikasteko eskubidea (?) batek baino gehiagok aldarrikatu izan.

Hauek horrela, hurrengo urratsa euskara eskoletan sartzeko bidea diseinatzea izan zen eta hau A, B eta D irakaskuntza elebiduneko ereduen finkapenaren bitartez gauzatu zen.

Bestetik, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak eskolarako ezarritako helburuei kasu eginez, bere hirugarren ataleko bigarren f) puntuan, haurrek, derrigorrezko irakaskuntza aldia bukatzean, bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela ihardetsi da eta, jarraian dio, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz.

Hori horrela, lege hauen testuetan irakur daitekeenez, euskarak gaztelararen maila bera lor lezake baina inoiz ez gehiago. Azkeneko dekretuetan euskara aipatzen den aldi oro gaztelera ere aipatzen da, baina euskararenak dira gero gehien eta zorrotzen arautzen direnak. Esaterako, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean, euskarari idazpuru oso bat eskaintzen zaio baina honela zehazten da: euskara ta gaztelania nahitaez sartuko dira Euskal Eskola Publikoan... (18. Atala, geronek azpimarratuta).

Aurreko horrek, nonbait, balio lezake euskara eta euskarazko irakaskuntza erdaldunen artean zabaltzeko baina, aldi berean, gaztelararen irakaskuntza euskaldunen artean ezartzen du.

Gobernuak beretzat hartzen du euskarazko irakaskuntzaren eskaintza ezartzea eta bideratzea. Jaurlaritzak, hizkuntza-ereduen eskaintzaren plangintza zehazteko oinarritzko irizpideak arautuko ditu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gurasoen edo tutore-

en nahia eta zonaldeko gizarte eta hizkuntza egoera kontutan izanik, ikastetxe bakoitzean eman beharreko hizkuntza-ereduak izendatuko ditu. (21. Atala, guk azpimarraturik).

Okerrena, ordea, ez da Gobernuak eskumen hori bereganatzea, horretarako ezartzen duen irizpidea baino. Egoera soziolinguistikoaren arabera euskararen hedapena gauzatu behar bada jai daukagu; gorpil zoro horretatik ateratzerik ez dago eta, euskaldun gutxi bizi diren zonaldeetan ez baita euskaraz ikas-irakasterik, euskaldun gutxi dagoelako, alajaina!

Amarru hori baino zitalagorik topatzea zaila liteke zinez. Gehiengoaren izenean arituz Euskarak ez lezake lor Hezkuntza Sisteman sartzerik, tamalez Euskara egun gutxiengoaren esku dagoelako. Norbaiti bururatuko ote litzaioke hezkuntza kalitatea arautzea auzune edo zonaldeko maila ekonomiko-kulturalaren arabera? Hornidura eta baliabide gutxi dutenei horren araberako Eskola ezartzeari nork onerizten dio? Horrelako kasuetan Legearen izpiritua ez da bereizketako egoerak ezabatzearena? (10. ataleko 1. puntua).

Azken buru, egoera soziolinguistikoaren arabera zonalde euskaldunak, salbuespenak salbuespen, biztanle gutxi eskualdeak dira baina, euskaldunen multzorik handienak, hiri eta herri handietan bizi dira, hiriburuetan batipat, eta erdaldunen artean barreiatuak. Beraz, euskaldun multzorik handienek zorigaitzoko egoera soziolinguistiko desorekatuenean biziz, Euskarazko irakaskuntza ezartzeko aurkako irizpideak pairatu behar dituzte.

Eskualde eta udalerrri euskaldunentan, berriz, Gaztelararen ikaskuntza arazo bilakatzen da. Izan ere, kasu hauetan administrazioak ezarritako helburuak nahitaez betebeharrekoak baitira.


Oro har, jatorrizko euskaldunak derrigorrez elebidundu behar diren bitartean jatorrizko erdaldunak, inguru erabat euskaldunetakoak ez beste, ez dute halakorik egin beharrik. Horrela, Hezkuntza Sistemaren bidez ingurune erdaldunak ez dira euskalduntzen eta, gehiengo erdalduna denez, Euskarak ez du Hezkuntza Sisteman sarbiderik eta Hezkuntza Sistemaren bidez ez daitezke euskaldundu zonalde erdaldunak,



eta gehiengo erdalduna denez, ... Haatik jatorrizko euskaldunen curriculumak, egoera aldatu ezean, elebiduntze prozesuari darraio ezinbestean.

Euskara Batuak dagoeneko 25 urte emanak ditu eta hezkuntza eredu elebidunak (A, B eta D) deiturikoak hamahiru. Egindako azterketa eta ikerketa gehienetan behin eta birritan frogatu izan da euskal ereduen (B eta D) hazkundearekin batera A ereduak ez duela euskalduntzeko balio. B ereduaren kasuan aldiz, bere aniztasuna eta trinkotasun eza nabarmendu izan da, joera bat antzemanetz: zenbat eta euskaldunagoa orduan eta hobe. Eta azkenik, D ereduaren lortu dira, emaitzarik baikorrenak Euskararen ikaskuntzan, jakina, horrekin batera beste ereduaren pareko emaitzak edo hobeak lortu direlarik Gaztelararen ikaskuntzan.

Gure ustez, azken urteotako euskal ereduaren hazkunde azkarrak hizkuntza gutxiagotuaren arazoa areagotu egin du Hezkuntza Sistemaren baitan. Matriku-



len gorakadak irakasle euskaldunen falta azalerazi du; ez dago irakasle nahikorik eta dauden gehienak Gaztele-raz heziak eta ikasiak dira. Gaztele-raz badu, eduki, urte askotako hezkuntz-hizkuntza estandarizatua eta landua berorren testuetan; Euskarak, osteraz ez. Testuen eskasiak eta irizpide aniztasunak oso modu kaltegarrian eragiten du euskaldunen curriculumean, harik eta Irakaskuntza Ertainean edota, Unibersitatean sartzerakoan irakas-hizkuntzaz aldarazteraino. Ez dago, beraz, euskararen kasuan ez ahozkoan ez idatzizkoan hezkuntza-hizkuntza eredu bateratu eta finkorik.

Haurtzaroan jartzen dira giza garapenaren funtzio psikiko gehienak oinarriak. Urte horietan ematen da ikaskuntzarik funtsezkoena eta azkarrena aldi berean; eskolan sartu orduko irakas-kuntza bereko ikaskuntza eta garapen psikologiari uztartu behar zaio etenik gabe. Norberaren garapenak 2-14 urte bitartean ezagutzen ditu aldakuntza

handienak; barne-hizkuntza, irakurketa, idazketa, kontzeptua, arrazonamendua,...

Ikurren mundura sartzen garenean hauen dekodaketari heldu behar diogu lehenik inolako laguntzarik gabe. Ezer ez ulertzetik hizkuntza egoki erabiltzera dagoen aldea 3 urteren buruan ematen da, modu naturalean ikasi ohi da alegia. Haurrak bi urte dituela, sekulan entzun ez dituen esaldiak esan ditzake gure harridurarako.

Euskaldunen artean, edozelango hizkuntza eredutan eskolatuak ere, beha daitekeen gaztele-razaren ikaskuntza eskolari zor ote zaio? Horrelako kasuetan neurtu izan den gaztele-razarako gaitasuna alde aurretiko plangintzaren ondorioa balitz, haren zioak eta xedeak ezagutuaz euskararen kasuari ezar genitzaizkioken. Baina, tamalez ez da horrela ez baitakigu euskaldunon gaztele-razaren ikaskuntza nola gauzatzen den. Hau da, hein handian behintzat, ikaskuntza hori berez gauzatzen delakoan gaude, eskola

giroan lantzen ez diren aldagai askoren menpe dagoela, hain zuzen ere.

Are zorrotzago, ikastola eta D eredu-ko ikastetxe askotan euskararen ikaskuntza bultzatu nahian gaztele-razaren erabilera eragotzi ohi da. Nork azal dezake gaztele-razaren ikaskuntza horrelakoetan?

Hala ere euskararen irakaskuntza erabat arautua gauza dadin eskatzen dugu. Hori da gure adituen kezka nagusia, programatu, moldatu, mailakatu, ... azken finean, haurrek eman behar dituzten urrats arautuak euskararako oinarritzko gaitasunak lortzearen.

Horrela diseinatzen da euskal curriculuma hizkuntzarekiko. Ikus dezagun, bestela, Erreformatak dakarkigun ideia nagusia hizkuntza mailan:

36/1992 DEKRETUA, uztailaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkartarako Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena.

Gure gizarteak bere burua elebiduntzat definitu du. Horren ondorioz, gure Hezkuntza Sistemaren funtsezko ezaugarria interbentzio elebiduneko eskola espazioaren itxuraketa da, eskolatzeak lehen mailatan garrantzia berezia duelarik, hizkuntzak azkar ikasteko neska-mutilen plastizitate eta harrera dela medio.

Elebitasun aldarrikapen honen ondoren, hitzezko berdintasuna da legeak arautzen duena ikus dezakegunez, baina ikastetxe bakoitzaren borondatearen esku uzten du hizkuntza gutxiagotuaren (euskara) berreskuraketa prozesua:

▼ Haur hezkuntzaren curriculumaren garapenerako dekretuaren eranskina

c) irakaskuntz-ikaskuntzarako eta ebaluaketarako norabideak

-Hizkuntz-Trataera

*Haur Hezkuntzan zehar hizkuntz-trataera egokia lortzeko, irakastaldea, ikaslearen hizkuntz jatorria bai eta ikastetxearen hizkuntz ereduak/aukerak ere kontutan edukiz, etapan zehar jarraitu beharreko prozesuari dagokionez erabakiak hartu beharko ditu: hizkuntz hauetariko bakoitzaren presentzia, sustatuko diren funtsezko erabilera gidoi moduak eta lehentasunezko lerro metodologikoak.

Lehen Hezkuntzako Curriculumuma ezartzen duen Dekretuan ere antzeko zerbait agertzen zaigu. Lehentxoago aipatutako elebitasuna, hizkuntza desberdinen tratamendu berdinen bitartez ziurtatzen omen da hizkuntza desberdinen jabetza; hizkuntza desberdinak berdina bainan, egoera eta estatus bera balute bezala. Ikus beraz:

237/1992 Dekretua Abuztuaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Lehen Hezkuntzako Curriculumuma ezartzen duena.

Lehen Hezkuntza 6 urtetatik 12 urtetara doa eta derrigorrezko hezkuntzaren oinarriko etapa da.

4. Atala.- ... Gaitasun hauek gara ditzaten lagunduko die:

g) g.1. Euskaraz eta erdarazko ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertu eta ematea, asmo eta komunikazio tesuinguru desberdinetan.

g.2. Hizkuntza atzerritar batean, tesuinguru jakin bateko ahozko eta idatzizko mezu errazak ulertu eta ematea.

▼ **Lehen hezkuntzaren curriculumaren garapen dekretuaren I eranskina etapako orientabide orokorrak**

b) irakaskuntz-ikaskuntzarako eta ebaluaziorako irizpideak

*Lehen Hezkuntzan zeharreko Hizkuntza trataera egokirako irakasle-taldeak, Ikastetxeko hizkuntza-eredu/aukerak eta Haur Hezkuntzan jarraitutako eskola ibilbidea kontutan hartuz, etapan zehar jarraitu beharreko prozesuari buruzko erabakiak hartu beharko ditu: hizkuntza bakoitzaren presentzia eta aurrerapena bitarteko arloak, lehentasunezko metodologia ihardunbideak, bultzatuko diren oinarriko erabilera moduak... Garrantzi berezia hartzen du irakurketa-idazketaren ikaskuntzarako erabiliko den hizkuntzara pasatzeko era eta momentua, baita etapa honetan zehar hirugarren hizkuntzaren ezarpena. Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren arteko harreman estua kontutan izanik, irakurketa-idazketaren ikaskuntzari nahiz euskaraz nahiz gazteleraz ekin ahal izango zaio, beti ere hizkuntza bakoitzaren aurretiko ezagupenek hori egitea

ahalbidetzen badute.

▼ **Lehen hezkuntza gaztelania eta EUSKARA**

1.Sarrera: arloaren kontzepzioa

Hizkuntza guztiak, bere erabiltzaileen komunikazio elkartrukearen bitartez, esanahiaren negoziazio prozesu baten ondorioz eta ama-hizkuntzaren (H1) eskuraketak bigarren hizkuntzaren (H2) eta atzerriko hizkuntzen ikaskun-

tzan eta eskuratze forman eragina duten ikaskuntza prozesu eta estrategien bidez eskuratzen dira. Honez gainera, hizkuntzari buruzko gogoeta ereduak eta eremu morfosintaktikoa, textuala, pragmatikoa, e.a., denentzat amankomunak dira, hauetako bakoitzak eremu hoietan harreman espezifikokoak baditu ere. Hau da, Euskara eta Gaztelaniaren irakaskuntza-ikaskuntza arlo bakar batean barnebiltzea arrazoitzen duena.

Zehaztapenekin aurrera jarraikiz, ondoren ikus genezaken bezala, euska-



porrota adierazteko ere: Eskozia, Irlanda, Gales,... Zertan dago Euskal Herria?

IREAL DECRETO 1.049/1979, de 20 de Abril, por el que se regula la incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza en el País Vasco (B.O.C.G.P.V. nº 27, de 25 de Mayo de 1979)

La diversidad de las lenguas habladas en España es un patrimonio cultural de valor inapreciable que, en conformidad con lo dispuesto en el artículo tercero de la Constitución, ha de ser objeto de especial respeto y protección. Tal fundamental precepto constitucional conduce a la necesidad de incorporar la enseñanza de cada una de dichas lenguas al sistema educativo, dentro de los marcos territoriales de las respectivas Cominidades Autónomas, con el fin de hacer efectivo el derecho de cada ciudadano al conocimiento y uso de su lengua materna, así como al de poder recibir las enseñanzas en la misma. Todo ello sin perjuicio de que el sistema educativo ha de procurar lograr que los escolares adquieran el pleno dominio del castellano, lengua oficial del Estado, que todos los eapañoles tienen el deber de conocer y el derecho a usar.

(Gure hizkuntz-egoera dela eta, legeak eta aginduak jatorrizko hizkuntzan agertzea erabaki dugu. Izan ere gaztelera bait da legearen indarra dakarena eta ez euskara).

ORDEN del Ministerio de Educación y Ciencia, de 3 de Agosto de 1979, que desarrolla el Real Decreto 1,049/1979, de 20 de Abril, por el que se regula la incorporación de la Lengua Vasca al sistema de enseñanza del País Vasco (B.O.C.G.P.V. nº31, de 16 de Noviembre de 1979)

2. La enseñanza de la Lengua Vasca o el desarrollo de programas escolares en la misma no supondrán, en ningún caso, disminución de los niveles que los alumnos deban alcanzar, de acuerdo con los programas vigentes, en el dominio oral y escrito del castellano, lengua oficial del Estado.

Tampoco excluirán la obligación de impartir la enseñanza de un idioma extranjero, tal y como determinan los planes de estudio de cada nivel educativo.



ra eta gaztelaren arteko balizko berdintasuna aipatzen jarraitzen da (hau da, zenbait kasutan euskarak gaztelaren maila bera izan dezake baldin eta ikastetxearen borondateak eraginda, eta Gobernuak onartuz gero beti ere, honek bultzatzen bada) baina ikus dezagun Helburu Orokorren hirugarren puntuan, euskaraz eta desberdinez esaten dena ez dela gauza bera batetik, eta bestetik, berdintasun egoera honen desberdintasun nabarmena, euskara aipatzen denean ez-ohizkoa den fenomeno modura, eta "errespeto" eta "berdintasunaren" izenean, gertakizun kultural aberasgarri modura hartu behar dena. Ez al da gutxienez kezagarria? Hara:

2. helburu orokorrak

Lehen Hezkuntzan Gaztelania eta Euskararen irakaskuntzaren helburua, ikasleengan ondoren zerrendatzen diren gaitasunak garatzen laguntzea da. Hizkuntza bakoitzean helburu hauen lortze maila noski, ikasleak hasiera batean duen hizkuntza egoera eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntza aukeren arabera desberdina izango da.

3. Estatu Espainiarraren eta gizartearen aniztasun linguistikoz jabetzea, bere existentzia kultur gertakari aberasgarri gisa baloratuz.

3. Reconocer y apreciar la diversidad lingüística en la sociedad, en el Estado español y en la zona de influencia del euskera, valorando su existencia como un hecho cultural enriquecedor.

"Berdintasun" egoera honetan berriz ere argi gera bedi "berdin" izan arren hautazkoa euskara dela, ikus dezagun, bestela:

4. ebaluazio irizpideak

Honako ebaluazio irizpide hauek Euskararen nahiz Gaztelanian helburu orokorren lortze maila egiaztatzeko balio izango dute. Horrela, "testu" hitza agertzen den bakoitzean, euskarazko testua edo/eta gaztelaniazko testua esan nahi du, zehazten ez bada ere. Noski, helburuen lortze maila eta ebaluazio irizpide desberdinetan aipatzen diren "testuen" zailtasun maila, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza aukeren arabera aldatuko da (guk azpimarratua).


Berdintasuna/desberdintasuna dikotomia ustela gerta daiteke aurrenekoa, oinarria eta abiaburua den egoera definitu gabe uzten bada. Hezkuntzaren planifikazioa, hizkuntzarena bezala, helburu jakin batzuen arabera gauzatu beharra dago. Esana dago, bai, euskara zein gaztelaren gaitasunak lortzea dela helburu baina horren azpian zama astuna ezkutatzen da. Hitzetik hortzera aipatzen den gizarte "elebiduna" ez dago lortzerik norabide horretarako helburuak finkatzen ez badira.

Argi esanda, "Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren helburutariko bat edozein ikastetxetan dela ere, Lehen Hezkuntzaren amaierarako euskarazko gaitasuna lortzea da", hau eta ez besterik.

Aitzakiarik ez, arren, zenbait hizkuntza ereduk (A-k kasurako) eta zenbaiten borondatek ez du eta jarritako helbururako balio. Hizkuntza jakin baten biziraupena ez dago, eta sekula ez da izango ere, norbanakoaren esku, are zehatzago, biziraupena edo berreskurapena herri proiektuari lotu ohi zaio. Badira munduan adibide ugari esandakoa berresteko: Israel, Finlandia,... eta

Eusko ikaskuntzak hezkuntz sarean

EUSKO IKASKUNTZAren XII Kongresua dela eta, beronen egitasmoa eta, ideia nagusiak laburbildu nahi izan ditugu elkarrizketa honetan eta bertan jorratu nahi den gaia **EUSKO IKASKUNTZAK HEZKUNTZ SAREAN** izanik bistan da, Oinarrizko Curriculum-Diseinuaren edukinak eta beraien kontzeptualizazioa benetako erronka dela nola hezkuntz komunitatearentzat hala Euskal Herriko Unibertsitate eta Ikerketa eta Zentruentzat. Horrenbestez, edukin horiek Ikerketa-ildo berriak idaroki ditzakete bai gaietan eta baita ikusmoldeetan ere. Ez dugu ahaztu behar eusko ikaskuntzak hezkuntz sistemaren barne instituzionalizatzea, neurri handi batean, Euskal Herriko Zientzi Komunitateak Oinarrizko Curriculum-Diseinuak planteaturiko gai eta arazoei ematen dien erantzunaren baitan izango dela. Modu horretara, Hezkuntz Komunitateak bere esku izango ditu ikerketa horiek eta, lehengai horietan oinarrituz, eusko ikaskuntzak diseinatu eta proiektatu ahal izango ditu gelaren eremuan. Bestela jokatzera, irakasleak material zaharkituak erabili beharrean aurkituko dira, horrek Euskal Herriko errealitatea nahastu eta mitifikatzeko duen arriskuaz.



ISILIK.- Nondik nora sortzen da Curriculum-ari buruzko hausnarketaren ideia hau?

EUSKO IKASKUNTZA- Eusko Ikaskuntzak 1991an egin zuen XI Kongresuan ondorio batzuk atera ziren non horietan azpimarratzen zen euskal kulturak Hezkuntz Sistemari izan behar duen garrantziaz. Azken finean, euskal kulturaren sendotzea, Euskal Herriaren identitatea, e.a., eskola sistemaren bidez gauzatuko direlako, hori alde batetik. Bestalde, jada Erreforma martxan zegoen eta Erreforma euskal gaien erakundetzea adierazten du eta bi elementu hauen edota bi faktore hauen ondorioz, bata Eusko Ikaskuntzak aurretik izan zuen Kongresu hori eta bestalde euskal gizartean hezkuntz erreforma jadanik, aurrerapausu batzuek eman dituela eta bigarrenik, erronka hauei erantzuna emateko pentsatu zen gai hau jorratzea hurrengo Kongresuan, hau da XII Kongresuan. Hori da nolabait, Kongresuaren hasiera.

ISILIK.- Eusko Ikaskuntzaren organigrama ezaguturik, badirudi Hezkuntza Saitetik at antolaturiko zerbait izan dela.

EUSKO IKASKUNTZA-Ni bazkide arrunta naiz, Hezkuntza gaietan sartuta, didaktika gaietan..., Gizarte Zientzien Didaktikan hain zuzen ere eta bilera zabal batera gonbidatu ninduten, besterik ez. Bertan sail guztietako arduradunek parte hartu zuten eta han hasi zen zehazten gaia, proposamen desberdinak planteatu ziren (nik neurea planteatu nuen) eta egitasmo hori edo proiektu hori onartu zen eta hortik abiatu zen. Tartean Hezkuntza arloko arduraduna zegoen eta beste zenbait arlotakoa ere bai. Gero, gaia oso espezializatua zenez eta Hezkuntza mundutik abiatzen zenez Hezkuntza arloko jende bat sartu zen, batzuk Eusko Ikaskuntzako partaideak eta beste batzuk Curriculum-aren edo OCDaren sorreran parte hartu izan dutenak, azken finean, gaiaren ezagutza zehatza zutelako. Javi GRANJA esate baterako, Hezkuntza arloko arduraduna denez, hasiera


hasieratik egonda bertan, demagun, bera dela koordinazio horren zuzia eta Hezkuntza sailaren koordinazioa berak eraman beharko du.

ISILIK.- Nahikoa berria izan daitekeen arlo honetako antolaketan, zernolako arazoekin egin duzue topo, zer izan da zuentzat zailena?

EUSKO IKASKUNTZA- Hezkuntza gaiak oso zirkulo hertsian eztabaidatzen dira eta Unibertsitateko profesionalen mundura jotzen badugu edota, beste profesioletara jotzen badugu, oso sentsibilitate gutxi dago

nikazio eta txostenen artean; zenbat komunikazio eta zenbat txosten aurkeztuko dira?

EUSKO IKASKUNTZA- Guk ez dugu nahi txostenak arlo teorikoa hartzea eta komunikazioak alde praktikoa, azken finean, biak nahastuta joango dira; esate baterako, txosten askotan eta arlo bakoitzean eztabaidatuko da material curricularrak nola gauzatzen diren, nola egiten diren, zein irizpideren arabera planteatzen den,... baita ere, unitate didaktikoak egiteko zernolako arazoak dauden, planteatuko da baita ere hainbat gaietan zelako esperientziak egin diren,



Hezkuntzak duen funtzioaz, asko hitzegiten da Hezkuntza zer den..., zer funtzio jokatzen duen..., eta erretorika elegante bat dago horren inguruan baina gero, nola gauzatu, nola bideratu e.a., ez dago eztabaida publikorik eta ez dago entelegentzia bat ere publikoki eztabaidatuko lituzkeena, zirkuitu txikietan mugitzen delako holako eztabaida.*

ISILIK.- Zuk planteatzen duzunez nolabaiteko bereizketa bat dago maila teoriko eta praktikoa artean, eta zentzu horretan badaiteke Kongresuan ere bipolarizazioa ikustea, alde batetik txostenak eta bestetik komunikazioak, zernolako proportzioa dago komu-

zelako arazo pedagogikoak izan dituzten eta zelako ondorioak atera daitezkeen hortik, beraz, txostenetan batzuetan arlo teorikoak edo hobeki esanda, edukin kontzeptualak planteatuko dira baina, beste era bateko edukin batzuek ere kontutan izan ditzatela aipatu zaie hizlariei, eta txosten horietan ez dago joera bat bakarrik, arlo teorikoa eta arlo praktikoa; biak elkaturik daude hainbat txostenetan bederen.

ISILIK.- Aldaketa handi bat ere somatu dugu, hau da, ohizkoak izan diren berbalizazioaz gain kongresu honetan posterren metodoa ere planteatu duzue, eta modu tradizionalan aurkezteko aukerarik

izango al da?

EUSKO IKASKUNTZA-Behar bada bietara aurkeztuko da, oraindik erabakitzeke dago, komunikazioen arabera, zenbat komunikazio, ze esparru hartuko duten, etab. , poster gisa ala ahoz azalduko diren, behar bada bi aukera horiek emango dira, baina jendearen ohitura batez ere ahoz azaltzea denez, behar bada bigarregoa izango da nagusi. Dena den, poster gisa hainbat esperientzia pedagogiko azalduko dira, arlo bakoitzean eredarriak izan daitezkeen esperientzia pedagogikoak. Gero gai praktikoak, hots, orain arteko esperientzia pedagogikoak beste formato batzuetan agertzen ere saiatuko gara, bideoan jasotzea adib., baina ez dakit zein neurritaraino egin genezakeen. Laburtuta, hor ikus daiteke proiektu baten sortzea, hasiera eta garapena eta proiektu horren azken gogoeta.

Gero beste formato bat izan daiteke esperientziak material curricularraren bitartez ematea, esate baterako disketeak, edo proiektu curricularrak jada materialetan gauzatuta, hori izan daiteke beste formato bat eta honi garrantzia handia eman nahi izan diogu zehar lerroetan, mahai-inguruena esate baterako ; bertan plazartuko direlarik hainbat zehar lerrotan gaurdaino eginiko esperientzia pedagogikoak beraz, ikuspegi praktiko horrek izango du bere presentzia. Noski, bere teorizazioak ere izango ditu ...,

ISILIK- Zergatik mugatu zarete curriculumera soilik eta ez euskal irakaskuntzan oinarritutako Erre-forman oro har?

EUSKO IKASKUNTZA- Funtsean hori da, Euskal Herrian emango den irakaskuntza euskal edukinekin gauzatuko dena dela alegia, hori da azken finean, Kongresu honen ardatza. Hasieran hau egin zen: euskal Curriculuma aztertu, OCD-a aztertu, OCD-an planteatzen ziren euskal gaiak hautatu, Euskal Herriarekin zerikusirik zuten euskal gaiak hautatu, eta euskal gai horiek curriculume-



an edukin blokeetan izenburu gisa agertzen direnez, hau da modu laburrean emanik, Kongresu honen bidez gai horien garapen curricularrari aukera bat eman izan genion. Hortaz, egin duguna da euskal gai horiek lehenengo hautatu, gero, euskal gai horiek ondo ezagutzen dituzten pertsonekin harremanetan jarri, (kontutan izan Kongresu honetan partaide izango diren guztiak Euskal Herrikoak direla) eta bertoko hezkuntz entelegentzia edo, esparru desberdinetan mugitzen den jendea denez, maila desberdinetan parte hartuko du eta

beraien esperientzia teorikoa eta praktikoa agertuko digutelarik. Beraz, euskal curriculumaren azterketa bat izan da, batipat, euskal kulturaren erreferentzia klabeak izango diren gai batzuk hautatu dira, (noski Kongresu batek ezin du agortu euskal gai guztia) baina nolabait esateko, lerro orokorrenak eta arlo guztietan gainera, (ez baita mugatu ez Gizarte arlorako edo Hizkuntzara soilik), beste arloak ere kontutan hartu dira (zeharo berriak direnak) eta euskal gaien beste perspektiba bat ematen diguten zehar lerroak (Teknologia kasu), ez



disziplinarra baizik eta askoz ere irekiagoa dena, baina euskal gizartean planteatzen diren hainbat arazo sozial beste ikuspegi batetik planteatzen dutenak, guzti horiek kontutan hartu izan dira.

ISILIK- Zehar lerroak esaten duzunean zehaztu al zenezake gehiago?

EUSKO IKASKUNTZA- OCDn agertzen dira hainbat zehar lerro adib., Hezikidetza, Inguru Giroaren Heziketa, planteatzen da baita ere Komunikabideen planteamendua, planteatzen da Multikulturalismoa edo Interkulturalismoa, Garapenerako Heziera, Baloreen Heziera..., holako hainbat gai planteatzen da , eta guzti horiek jaso nahi izan ditugu, bai zehar lerroen kontzeptualizazioa batetik, eta baita zehar lerroen esperientzia zehatzak zeintzuk izan diren ere. Baina dena den, Kongresu honen funtsean beste zehar lerro bat dago, hots, Dekretuak berak dioena Dekretuak honela dio: *“Inguruneak bere dimentsio sozialean eta kulturean batez ere, balioen, tradizioen eta jakintzen berri ematen digu”* , azken batean, Eskola erakundeak inguruneke kultura transmititu behar

du, eta kontutan izan behar dugu inguruneke kultura euskal kultura dugula, ondorioz, arlo guztien curriculumean funtsezko edukin gisa barne hartu behar da, baina inguru natural eta sozialaren arloan modu zabalago batez eta garrantzi handiagoz. Esaldi hau ondo aztertzen badugu ikus dezakegu, euskal kultura zehar lerroa bihurtzen dela Hezkuntz sisteman. Beraz, euskal kulturaren hainbat aspektu tratatzea eta bere tratamendua zein izango den izango litzateke Kongresu honen funtsa.

ISILIK- Hegoaldean dagoen Dekretuaz mintzo zara beti, eta Eusko Ikaskuntzaren tradizioari

***E**saldi hau ondo aztertzen badugu ikus dezakegu, euskal kultura zehar lerroa bihurtzen dela Hezkuntz Sisteman*

atxikitzen bagatzaizkio hots, bereizketa administratibo eta politiko guztien gainetik euskal kultura dagoela, alegia, Iparraldeko euskal kulturak zernolako presentzia izango du Kongresu honetan eta gure euskal kulturaren antzeko europar kultura minorizatuek zernolako presentzia izango dute Kongresu honetan?

EUSKO IKASKUNTZA-Lehenengo galderari erantzungo diot. Eusko Ikaskuntzak Euskal Herri guztian du presentzia, eta hori kontutan izanik, bai Iparraldeko eta baita Nafarroako jendeak ere koordinazio mailan parte har dezan saiatu gara. Hori arlo batzuetan lortzerik izan dugu. Gero gaia jorratzerakoan saiatu gara baita ere Iparraldeko jendearen presentzia kontutan izaten. Esate baterako nire arloan, Gizarte arloan, material curricularrak aztertzerakoan, Lauburu taldea etorriko da. Lauburu taldeak oso tradizio luzea du Euskal Herriko Historia arloko material curricularrak sortzen, eta oso interesgarria zela kontrastatzea eritzi genionez , Komunitate Autonomo honetako, Nafarroako eta Iparraldeko esperientziak nola gauzatu diren ikusteko, behar bada mahai inguruan edo beste formatoren bidez ikusteko aukera izango dugu, Iparraldeko inspektore edo inspekzioko norbait ere agertuko da. Eta Iparraldeari bere presentzia eman nahi zaio erakusketan, horretan saiaturiko gara hau da, bertoko Erreformaren berri ematen, euskal gaiak nola jasotzen diren han, bertoko prentsa ere jasotzen (dagoen neurrian), bertan sortu diren material curricularrak,... beraz, saiatu gara Iparraldeko egoera ere jasotzen kontutan harturik, Isabel AJURIAGE-RRA daukagula Eusko Ikaskuntzan, bera irakaslea dela, eta bere bitartez pentsatzen dugu nolabait gauzatzea eta plazaratzea Iparraldeko egoera Hezkuntz arloan. Eta hori Iparraldea-ekin egin dugun moduan Nafarroarekin ere beste horrenbeste egin dugu, bertoko prentsa eskolarra, bertoko material curricularrak, bertan egin diren esperientziak etab., horiek ere

kontutan izan dira.

Eta bigarrenari erantzunez, Eusko Ikaskuntzak izan dituen Kongresuetan eta batez ere gerla aurreko Kongresuetan garrantzi handia izan zuten beste herrialdeetako esperientziek, haietatik jaso zitezkeelako hainbat eredu. Gaur egunean kanpoko eredu horiek jada, geureganatuta ditugula uste dut, zeren eta, kanpoan funtzionatzen duten paradigma hauek, hau da, hainbat teoria, esperientzia, eta gogoeta, gaur egun Euskal Herrian egiten baitira. Beraz, hemengo esperientziei lehentasuna eman nahi izan diegu, behar bada, hemendik atera baitaitezke une honetan halako ereduak ere.

mugitzen dira, ez dago azken finean, material ugariarik hainbat gaietan, eta irakasleak hemen ez badu aurkitzen materialik kanpoko materialetara joko du sarritan, eredu unibertsaletara joko du eta hemengo edukin zehatzak baztertuta utzi. Kongresu honen ostean baliteke hainbat arlotan eta hainbat gaietan, guztietan ez bada ere, halako ildo berri bat irekiaz aukerarik edukiko dutela beren klaseetan sare kontzeptualak prestatzeko, edo prozedurazkoak edo dena delakoak, erreferentziak edukiko dituztela gero beraiek beren testuinguru konkretua molda dezaten.

Hortaz alde horretatik, baliagarria izan daiteke bai gogoeta mailan, eta

men batzuk edo gomendioak ere egingo dira.

ISILIK- Hori azken egunean planteatuko al da?

EUSKO IKASKUNTZA- Baietz iruditzen zait, txostenak astiro irakurri ondoren e.a., egin beharko da halako irakurketa lasai eta gogoeta sakona.

ISILIK - Hori bai, baina beste Kongresutan esate baterako, denon artean eztabaidatu ondoren halako proposamen eta gomendio batzuk ateratzen dira, gero beste instituzioei bidali ahal izateko. Hemen ere horrelako zerbait planteatuko al da, ala Eusko Ikaskuntzako egituraren arabera eztabaidatuko da, ala nola?

EUSKO IKASKUNTZA- Bai. Ziur aski beste une batean egin beharko dela iruditzen zait. Han, dena den, txostenemaile bakoitzak egingo ditu bere gogoetak, bere proposamenak eta gai bakoitzean beraiek jorratu behar duten gaietan bada, ziur aski emango dituzte hainbat proposamen, hainbat gauza egiteke dagoelako oraindik, eta zehar lerroei buruz, edo edukinei buruz, edo iturburuei buruz edo, behar bada hainbat proposamen konkretu emango dituzte. Hizlari bakoitzari gaiarekin batera eman zaio txostenaren aurkibidea edo, halako azpigai batzuk berak landu ditzan txostenean zehar, eta gai horiek izan dira batez ere praktikoak edo, kontutan izanik irakasleen beharrak zeintzuk diren.

ISILIK- Lehenago planteatutakoaren arabera, zera zenioen; euskal kultura nola sakondu eta nola garatu eskola sistemaren bidez zehar lerroetan eta, nola eraman euskal gaien gaurkotzea aurrerantzean,... baina ez al zaizu iruditzen inportantzia gehiegi ematen zaiola Kongresu honetan ere, Hezkuntza formalari? Edota Hezkuntza ez-formala eta formarik gabeko heziketa eta beraz, eskolatik kanpo egon daitezkeen kultur garapenerako arloek ez dutela agian, pre-

Hemengo esperientziei lehentasuna eman nahi izan diegu, behar bada, hemendik atera baitaitezke une honetan halako ereduak ere.

ISILIK- Beraz, ongi ulertu baldin badugu, Kongresu honek errelexio-gogoetarekin izan nahi luke eguneroko praktikan aurkitzen ditugun hutsuneei soluziobideak aurkitu eta zabaltzeko, hau da, lurraldetasunaren kasuak adib., testuliburuetan Iparraldeak, Nafarroak jasotzen duten tratamendua, zernolako den ikusteko, ezta?

EUSKO IKASKUNTZA-Bai, hemen aterako den materiala baliagarri izango da ikastetxeetan, bertoko proiektu curricularrak egiterakoan material hori erabiltzeko aukera izango baitute. Kontutan eduki behar da une honetan irakasleek, maisu-maistrek, duten arazorik nagusia materialaren eskasia dela euskal gaiak eskaintzerakoan eskolan. Gaur egun Euskal Herriko curriculumean, Komunitate Autonomoko curriculumean, Nafarroako curriculumean agertzen diren hainbat gai epigrafean bakarrik agertzen dira eta, horren garapenik ez dago. Ikerketak sarritan oso eskasak dira, edo esparru txikian

baita edukinen garapenean ere material zehatz bat edukiko dutelako. Eta bestalde, Kongresua amaitzen denean, Kongresu guztietan egiten den moduan, gogoetak egingo dira, bai administrazioari begira, bai Hezkuntz sareari begira, bai irakasleei begira eta baita hezkuntz agente guztiei begira ere, behar diren beharrian guztiei erantzuna emateko proposa-



sentzia gehiegirik Kongresu honetan?

EUSKO IKASKUNTZA- Beno, Kongresuak maila desberdinak ditu, maila desberdinetan antolatzen delako. Txostenetan planteatzen dira

Hiria bera eskola izatea alegia, euskal gizartea bera eskola izatea eta eskola eta gizartearen arteko lotura hori nolabait sendotu ahal izateko

batez ere edukinak, curriculumean agertzen diren edukinak, eta erakusketan aldiz, lehen tasun bat eman nahi zaio zuk adierazten duzun puntutxo horri, eta zera da; Euskal Herrian presentzia duten hezkuntz agenteak, (eta agente horiek izan daitezke Gobernu inguruan mugitzen direnak) eta Gobernutik kanpo dauden ONGak, esate baterako, edo beste hezkuntz agenteak; argitaletxeak, herri mugimenduak, hainbat kultur ekintza, hainbat Elkarteren inguruan antolatzen diren ekintzak, guzti horien berri jaso nahi da. Azken finean Euskal Herriak berak, euskal gizarteak eskolari begira eskaintzen dituen hezkuntz zerbitzuak zeintzuk diren aztertzeke eta ikusteko zein den beren neurria. Sakonean, badago planteamendu bat, eskola eta gizartea batera doazela, alegia. Kontutan eduki behar ditugu hemen iturburu sozialak eta iturburu sozio-kulturalak esaten diguna, eta gizarteak asko dauka emateko eskolari eta, eskolak ere asko dauka jasotzeko gizartetik, gizarte horretan murgilduta aurkitzen delako. Beraz, hainbat esperientzia jaso nahi dugu; granja-eskola, tailer edo mendigoizale edo beste hainbat mugimendu (hirugarren munduareki edo, ingurugiroarekin, edota, hezikidetzarekin zerikusia dutenak,...) guzti

horiek eskolatik kanpo aurkitzen dira eta guzti horiek hainbat material eta hainbat proposamen dituztenez eskolari buruz guzti hori jasonahi dugu erakusketan. Hara agertzen diren guztiek ikus ditzaten Euskal Herrian zelako hezkuntz planteamenduak dauden gizarte mailan. Azken finean, lehen aipatzen zenuten Torino-ko esperientzia hori, hiria bera eskola izatea alegia, azken finean euskal gizartea bera eskola izatea eta eskola eta gizartearen arteko lotura hori nolabait sendotu ahal izateko.

ISILIK- Zehargaiekin jarraituz, Eusko Ikaskuntzak eta antolatzaile zaretenez zehar gaiei orain arteko tratamendu bera emango al diozue, ala Kongresu honek orokortasunean, hartuko al du, hau da, hezikidetzaz, ...

EUSKO IKASKUNTZA- Hor zehar lerroek arrisku bat dute, zehar lerro bakoitza disziplinatuz ulertzea eta hartzea. Eta hemen mahai-inguru hauen bidez lortu nahi dena da eztabaida orokor bat sortu, zehar lerroak zer diren eta zein den beraien arteko amankomunitasuna adieraziaz, azken finean zehar lerro hauen zehartasun hori aztertzea.

Orduan, lehenengo mahai-ingurua batez ere kontzeptualizazio mailan joango da, hau da zehar lerroak zer diren, beraien arteko loturak zeintzuk diren eta hori izango da nolabait eztabaida kontzeptuala eta gogoeta sakon bat egin nahi da zehar lerroek jokatzen duten papera zein den eta beraiek dituzten akatsak eta akats horiek nola gainditu behar diren. Gero beste mahai-inguruetan planteatuko dira ondare kulturalaren eta inguruko ondarearen inguruan eztabaida zehatzak, edo komunikabideen inguruan edo, curriculumean planteatzen diren hainbat gairen inguruan egin diren esperientziak plazaratuko dira.

Beraz, zehar lerroen inguruan egongo da alde bat teorikoa edo gogoeta maila duena eta, beste mahai-inguru guztietan lortu nahi da zehar lerro hauek orain arte egon

diren esperientzia pedagogiko hauek zer eskaini duten, zer arazo izan duten eta etorkizunari begira nola planteatu behar den.

Eztabaida hau leku guztietan egiteke dago, Espainia mailan, Euskal Herrian, honen inguruan dauden mugimendu guztiak hortxe daude zalantzan, nola ulertzen den guzti hau, curriculumaren barnean nola sartu, curriculumetik kanpo geldituko diren, erretorika hutsa izango den ala zer izango den. Guzti hori eztabaidatu nahi da.

ISILIK- Ez al da aski grabea, Hezkuntz sistema bat eta Erreforma oraintxe bertan sartu zaigunean, Hezikidetzaz, Ingurua eta hola-ko baloreak zehar gaiatzat hartzea eta planteatzea?

EUSKO IKASKUNTZA- Beno, kontzeptua berez egokia da zehartasun hori azpimarratzen bada, hau da, gai horiek ez dutela egon behar osagai modura, edo anekdota moduan, edo apaingarri gisa, halako ordu berezitan, edo tutorietan edo ez dakit zer ordutan egiten den zerbait edo eskolatik kanpo egiten den zerbaiten gisa. Zehar lerroen filosofia zera izango litzateke gai hauek presentzia osoa izan behar dutela arlo eta disziplina



arloan, bai euskal geografiaz,..e.a. hutsune nabarmenak baitituzte argialetxeek euskal curriculumari dagokionean.

EUSKO IKASKUNTZA- Curriculumari buruz badaude mahai-inguruak, badaude txostenak eta behar bada ikusi beharko da beraiek nola garatzen eta gauzatzen duten gaia. Zuk planteatzen duzun gai hori oso inportantea da eta begi bistan da gure testuliburuak nondik nora jotzen duten. Ez bakarrik Iparraldea ez dutelako kontutan hartzen, Nafarroa ere ez sarritan, edo hemengo Komunitatean egiten diren hainbat liburuk ere neure arloan esate baterako, Gizarte arloan, Euskal Herria gaia osotzat hartu nahi du baina, azken finean, Gipuzkoa eta Bizkaia dira eredu. Orduan geuk egiten ditugun testuak hemen eta Euskal Herri osorako egi-



guztietan eta eskolako antolamentuan bertan. Beraz, zehar lerro hauek kutsatu egin behar dute eskolako dinamika osoa, eta hori izango litzateke zehar lerroen filosofia. Zehar lerro hauek polemikoak direnez, irakurketa murriztaile batek alde batera utziko litzuke eta konpromezu handia eskatzen duen neurrian, behar bada disziplinatik kanpo aterako. Eta hori izango litzateke zehar lerroek beraiek eskatzen duten filosofiaren gaiztozea.

ISILIK -Batetik, zernolakoa izango da euskararen presentzia egitarauan, hain zuzen, txostenemaile eta komunikanteen artean; euskara ikerketa hizkuntzatzat harturik, hots, hezkuntz hizkuntzatzat zeintzuk erabiliko duten eta hori nola ziurtatzen den eta bigarrenik, mekanismo zentzagarriak jarri al dituzue euskararen presentzia ziurta dadin, adib., itzulpen zerbitzuak, errotulazioak,...?

EUSKO IKASKUNTZA- Euskararen presentziaz mintzatu ginen eta filosofia horrekin egin nahi dugu Kongresu hau beraz, arlo batzuetan hori nabarmena izango da esate baterako, hizkuntza, eta literatura arloan euskararen presentzia nere ustetan


nabarmena izango da, gehiengoa ziur aski euskaraz egingo dira, beste hainbat gaietan aldiz, gai espezifikokoak eta espezializatuak diren neurrian, gai hori ezagutzen zuten jendearengana jo dugu eta sarri askotan gure asmoak eta errealitatea ez datoz bat. Eta kasu askotan txostenemaileak erdaldunak diren neurrian, erdaraz egin beharko dute, azken finean, oraindik ez dagoelako tradizio bat euskaraz jorrazteko gai horiek. Dena den, ahalegindu gara Euskal Herri inguruan dagoen jende guztiarekin harremanak edukitzen eta, aukera eman zaienez, beraiek ikusiko dute nola egingo duten aurkezpena, eta aukera eman zaie argitaratzeko orduan ere euskaraz argitara dezaten, hau da, euskaratzeko badutela zerbitzuren bat euskaraz argitaratu nahi badute behintzat. Eta nik ikusi dudanez komunikazio batzuk euskaraz aurkeztu dira nere arloan. Eta komunikazio batzuk oso interesgarriak gainera, ekonomiaren presentzia gizarte arloko curriculumean, gai espezifikoko bat da baina, zorionez espezialista badugu gai hori jorrazten ari dena.

ISILIK- Gaur eskuartean ditugun testuliburuak zerbait esateko asmorik baduzue? Bai hizkuntza

Gizarte arloan,
Euskal Herria
gaia osotzat hartu nahi du baina, azken finean, Gipuzkoa eta Bizkaia dira eredu.

ten ditugun zentzuan, gipuzkoar zentzu edo bizkaitar zentzuaz egiten ditugu. Hori gertatzen da nik aztertu dudana gaietan bederen, Historia gaian, (oraintxe argitaratuko dut lan bat horretaz) Historia testuliburuetan, orain arte erabilitako testuliburuetan Euskal Herriaren presentzia nolakoa den, eta hori argi eta garbi ikusi dut, gaia bera jorrazterakoan Historia gaiak, Gipuzkoako historia, eta Bizkaiko historia egiten da eta ez Euskal Herrikoa. Eta gero eredu hori zabalitzen da eta Euskal Herri osokoa izango balitz bezala aurkezten da. Beraz, hor asko daukagu egiteke oraindik, ez dugulako ezagutzen ikerketak nolakoak diren beste komunitateetan eta

ez dugu oraindik holako komunikazio zabal bat edo ez dugu komunikaziorik geure artean, komunitate zientifiko eta hezkuntz komunitatearen artean ez dugu biderik informazio guzti horiek pasatzeko leku batetik bestera. Orduan Unibertsitate bakoitza mugitzen da bere esparrutxoan, departamendu bakoitza mugitzen da bere esparrutxoan, eskola bakoitza mugitzen da bere eskolan eta gehienez bere eskualdean edo probintzian bada bere probintzian, baina Euskal Herri osoaren zentzu hori oraindik egiteke dago, erretorikan bai, baina praktikan oraindik asko falta da.



ISILIK- Irakasle goaren prestakuntzaz orokorrean hitzegino al da, ala baduzue atal zehatzen bat irakasle goaren prestakuntzaz?

EUSKO IKASKUNTZA- Ez. Kongresuaren gaia, "euskal gaien presentzia curriculumean" izan da eta beste gai hori izango litzateke Hezkuntz politika nola gauzatuko den eta horretarako dauden agentzia guztiak zer egiten ari diren e.a.. Hori beste gai zabal bat izango litzateke, hots, Kongresu oso baterako emango lukeena.

ISILIK - Ebaluazioa bera ere landuko al da? Hau da, bai al dago

sail bereziren bat egindakoaren ebaluaketaz?

EUSKO IKASKUNTZA- Egindakoaren inguruan ebaluaketa, edo gogoeta, hausnarketa. Baina ez ebaluazioa gaitzat harturik. Ebaluazioa gai tekniko zehatza da, langai berezi batzuk dituen eta langai horiek ebaluazio maila desberdinetan zehazten dira; ikastetxean, ikastetxeko antolakuntzan, irakasle goan, irakasle-ihardueran, materialak, ... Horrek jada, eskatzen du beste sakontasun bat. Ebaluatuko dira bai, baina orain arte egin diren material curricularrak ebaluatuko dira, esate baterako, Gizarte arloan nola egiten ari diren, Natur Zientzietan baita ere planteatuko da irakasleen esperientzia pedagogikoak eta material curricularrak nondik nora doazen, eta beste hainbat esperientzia ere ebaluatu edo planteatuko dira, baina maila horretan eta ez ebaluaketa elementu curricular eta bere langai eta tresna zehatzekin. Kongresu honek bere curriculumaren galdera nagusi bati erantzuten dio eta da *zer irakatsi*, zein edukin. Hori da nolabait ardatza eta ardatz horren sakonean edo atzetik dituen iturburuak izango dira iturburu sozio-kulturala, (hau da euskal gizartearen barnean) eta iturri epistemologikoak. Iturri epistemologikoak eta iturri sozio-kulturalak izango dira ardatzak. Iturri pedagogikoak ere jasoko dira, esperientzia pedagogikoak agertzen diren neurrian, eta iturri psikologikoa agertuko da batez ere, komunikazio batzutan kognizio sozialari buruz eskaintzen diren komunikazioen bidez. Baina kontutan izan behar dugu guk zabaldu genuela ideia, (kognizio soziala, alde zehatzean, e.a.,) baina Euskal Herrian une honetan dagoen ikerketa maila arlo horietan oso eskasa da, hasi berria da, eta beraz, ezin dugu eman ez dagoenik.

ISILIK- Zein hizkuntza erabiliko dira, euskaraz aparte?

EUSKO IKASKUNTZA- Iparraldetik badaude eta ez dakit euskararik erabiliko duten ez ditudalako pertsonalki ezagutzen; beraz, euskara, gaz-

telera, eta Iparraldekoek euskara edota frantsesa. Euskal Herriko Komunitatean presentzia duten hiru hizkuntzak izango dira nagusi. Laburpenak eskaintzerakoan hizkuntza hauetan egin dezaten eskatu zaie. Edo nolabait ingelesa ere laburpenetan batzuk erabiliko dute. Onartua izango da.

ISILIK- Noiz hasiko da?

EUSKO IKASKUNTZA - Hasi, Azaroaren 31n hasiko da zehar lerroen inguruko mahai-inguru batekin hasiko da eta Kongresua oso-osoan Abenduaren 1etik 3ra. Hori izango da goizetik gaua arte. Lehenengo hitzaldiak izango dira orokorrak, hau da, arlo guztientzat baliagarriak izango direnak, lehenengo hitzaldia F. BARCELOK emango du eta Erreformaren atzean edo Erreformaren sortze horretan egon den neurrian berak eskainiko digu nola aurkitzen diren euskal ikasketak curriculumean eta honen inguruan bultzatuko diren politikak, azken finean, hitzaldi honen funtsean iturri sozio-kulturala edo euskal gaien presentziaren nondik norakoa dago; 2ean, N. USUAK iturri epistemologikoaren ikuspegitik emango du batez ere, ezagutza zientifikoa nola sortzen den, euskal gaiak nola jorratu diren eta erdaraz izango da "Las formas del conocimiento científico en los estudios vascos" hau da, euskal ikasketen inguruan dauden ezagutza zientifiko moduak edo erak, korrante epistemologikoak, paradigmak e.a. eta, 3ean ELTZOK planteatuko digu, curriculumean hain garrantzitsua den 3go edukin tipoa; jarrerak eta baloreak euskal gizartean nolakoak diren, azken finean, hiru erreferentzia nagusi hauek argituko dute hainbat elementu gero, irakasleek ezagutzeko eta aztertze materialak eta beren ingurua aztertze ere. Gero arloek izango dute gai espezifikoak eta arratsaldeetan, berriro ere arlo guztietako jende guztia bilduko da, denen artean ikusteko gai honek sakonean duen amankomuntasuna zehar lerroen artean. Hori izango da nolabait Kongresuaren egitura.

Curriculum izkutua

Izarra eskolaurreko esperientzia

■ Edurne LACONCHA irakaslea

IZARRA eskolaurrea Gasteizko "B" eta "D" ereduko zentru publiko bat da. Sei gelako ikastetxea da eta hiru, lau eta bost urtetako haurrak daude.

Zazpi andereño daude, eta tutoritzarik ez daukanak zuzendaritza eramatez gainera, eskola proiektua koordinatzen du eta tutoreek behar duten laguntza betetzen du. Irakasle taldea egonkorra da, sei irakasle behin betikoak direlako.

Besteen esperientzia eta ikerketek eta, azken urte hauetan guk egindako behaketek haxe utzi digute argi: oraingo Hezkuntza sistema mixtoa izan arren, eskolak ez ditu berdin tratatzen neskak eta mutilak, ez ditu neska eta mutilekiko espektatiba berdinak eta neska eta mutilak eraberdintzen saiatzen da "mundo masculino" delakoaren baloreak, gehienetan inkonstzienteki, pertsona guztiei zabaltzen, baliagarri bakarrak bailiran.

Gure zama kulturala, hezkuntza eta esperientzien bidez jasota, oso indartsua izanez gero, haxe gertatzen da:

"Sarritan, neska eta mutilak berdin tratatzen dituztelako, ikasgelan sexismoa desustraitu dutela, konbentziturik dauden irakasleekin topo egin dugu" (Montserrat MORENO).

Marina SUBIRATS eta BRULLE-Tek egindako ikerketek haxe azaltzen dute: *"Ez da egia neska eta mutilak berdin tratatzen direnik. Hezkuntz eredu bateratzera joan da, baina neska eta mutilekiko tratatuak desberdina izaten jarraitzen du, irakasleek, mutilak eredu hau barnera dezan, ahalegin handiagoa egiten dutelako (prestatutako atentzioan ikusita). Neskak, bigarren mailako mutilak bezala tratatuak izaten dira. Desberdintasunaren estereotipoak, irakaslearen maila inkonstzientean izan arren, funtzionatzen jarraitzen du"*.

Neskek eta mutilek ez dute errealtatea ezagutzen soilik edukin objektiboen bidez, baizik eta "izkutuko curricu-

lum" a delakoaren bidez, hau da, bere inguruan ikusten dituzten baloreak, jarrerak eta gaitasunak. Gure baloreak argi azaltzea komenigarria da, aipatu "izkutuko curriculum" konstzientea egin, zein balore eta gaitasun ari garen indartzen eta zeintzuk ukatzen edo izkututzen, argi edukitzeko une guztietan, eta gauza bera, ezin dugula neutralak izan jakitea, ez hezikidetzan, ez sexu heziketan ezta beste ezertan ere. Baloreen azterketa eta beraien aukera

posibleak, hau da azken urte hauetan hezikidetzan gaian lan egitera eraman gaituena.

Printzipio soziologiko zahar batek zera dio: *"Arazo batez jabetzen dena baino ez da gai izango soluziobidea emateko"*. Honek esan nahi du, estereotipoak eta bereizketa sexista guztiei aurre egiteko hausnarketa sakona egin behar dugula oraindik, denok sexista garelako konbentzi gaitezen.



Vygotski eta Oteiza

■ Josu TXAPARTEGI irakaslea

Eskolaren porrotaz mintzatzean askotan entzuten da haurrak txikiak diren bitartean ilusioz beterik joaten direla baina, urteak igaro hala gero eta aspertuago eta gogo gutxiagoz ikusten direla. Hitz batez, irakurtzeko eta jakiteko grina bera ere oro har, eskolak itzaldu egiten duela, alegia.

Ikasteak berez eragiten duen nekea normala dela argudiatzeak ez du deus konpontzen. Askotan, ezer gutxi esateko erabiltzen dugun hizjario luze eta neketsua da beste puntu aipagarrietakoa. Eta horrekin batera doa, klaustroetan gure iritzi eta ideia errotoak azaltzeko dugun ezintasuna. Batzuk diotenez, haurrek gero eta okerrago hitzegiten dutela, hitzak falta zaizkiela. Irakasle lagun batek esaten zidan aditz forma bitxienak ere irakatsi beharko genizkiekeela, horrek izugarritzko garrantzia zukeela eta etorkizunerako.

Estatuan martxan ipini duten Hezkuntza Erreformari begiratzen badiogu, 10-15 kontzeptu berri buruz ikasi eta haurra kokaturik "dagoen" lekutik abiatu behar dugula ideiatik at, deus gutxi ari da nabarmentzen. Badirudi hor ere hitz asko eta ideia gutxi dagoela.

Eta arestian aipaturikoen ondoren, Euskal Herriak une honetan behar duen hezkuntza eta irakaskuntza eredu berri bat moldatzeko tenorea iristen ari dela iruditzen zait. Espainiarrek Erreformaz moldatu dutena baliagarri gerta dakiguke atal batzutan, baina Euskal Herriak bere baitan sortu behar du emaitza propio hori. Beraz, ondorengo lerrook hortik bideraturik daude.

Manolo URBIETA euskal pedagogo eta musikarari emankorrek betidanik aldarrikatu ohi du: "*Musika haurra eta bere nortasunaren zerbitzuan dago, ez alderantziz. Musikaren bitxitasunak ondoren datozenak dira. Erabil dezagun musika haurra bera osatzeko, taldearen osagarritasunerako. Horixe da, nik uste, TXIRULA MIRULA musika metodoaren funtsa. Musika egiteko baino gehiago, haurra eta bere ingurua eraikitzeke bide bat*".

Lengoaia desberdinak pentsamendu eta barne-bizitzaren zerbitzuan egongo bailiran. VYGOTSKI oroitarazten digu honek: "La relación entre el pensamiento y la palabra constituye el proceso vivo de generación del pensamiento en la palabra. La palabra privada de pensamiento es una palabra muerta. Como dice el poeta: y como las abejas en la colmena vacía huelen mal las palabras muertas".

Hitz biziak agortzen direnean hitz bitxiak asmatzen dira gure porrotaren estalgarri. Pentsamendu bizia erraz moldatzen da dagoenarekin eta hitz baten faltan laster sortuko du beharrezko zaion tresna. Ildo beretik gogora arazten digu OTEIZAK: "Y el apetito para necesitar de las palabras, para reanudar el juego creador de las palabras? Antes precisamos diccionario de ideas! y este diccionario no se hace como un libro, se hace con la salud espiritual del pueblo, con su capacidad de imaginación, que no vuelve si no vuelve el poeta, si todos no volvemos al oficio original de las ideas...".

Noizbait pentsatu izan dugu hiz-

kuntzak pentsakera moldatzen duela (taxutu, egituraketa) eta horregatik dela hain garrantzitsua euskaldun izateko euskara jakitea. Baina mendetan zehar euskararen baitan jaso den pentsamendu baten ekarpena izan da. Orain ezin dugu gaur arterainoko ekarpenak erakutsiaz bizi. Euskalduna izango da euskaraz biziaz bere ekarpenak hizkuntzari ere egiten dizkiona. Honela egin dute gure aurrekoek eta honela egitea komeni zaigu guri ere. Tranpan erori samarrak gaudela uste dut. Erreformarekin garbi ikusi da: *Ideiak, eskemak, kontzeptoak, pentsakera,...* Madrildik ezartzen zaizkigun bitartean, *guk euskara hizkuntzaren defentsa motz eta mugatuan jarraitzen dugu* " Eskolatik bertatik hasita jaiotzen ari da euskara arrotz eta erdaldun bat. Koadro baten antzera erakusten ditugu euskararen bitxitasunak, atzizkiak, aditzak, joseraren berezitasunak,... Noizko bertsolariak eta poetak, hizkuntz eta irudi sortzaileak gure heziketaren ardatzean?. MITXELENAK zioenean *soziolinguistek bakarrik salba dezaketela hiltzear dagoen hizkuntza*, honelako zerbait adierazi nahi ote zuen? Edota, Joxe Manuel ODRIOZOLAK euskara berrairikitzeko lehenik *herria eraiki behar dela* berriki idatzi duenean ?

OTEIZAREN iritziak molde eta taxukera bereziak erabiltzen omen ditu euskaldunak bere diskurtso-komunikaziorako. Kantutegi zaharretan, bertsogintzan eta Pio BAROJAREN kontatzeko eran aurkitu zituen beronen aztarnak. Harrigarria suertatzen da VYGOTSKIK berezitasun

hauen antzekotasuna somatzea "barne hizkeraz" (lenguaje interior) dioenean: "abreviación de la frase y de la oración (...) omisión del sujeto y de las palabras que a él se refieren (...), tendencia a la predicación (...), unión de las palabras..."; hots, beharrezko ez den guztia alboratzen da, kontzeptuen bila goaz, pentsamendua moldatzera eta enbarazo egiten duen oro baztertzen da. Horrelakoa da barne hizkera, bizia, kontzeptuetan itsatsia, azkarra, zirkularra, hitz gutxikoa, behar direnak soil-soilik. Eta aldi berean, anitza (norbaitek gogoratu duenez, errizomak hazten diren gisakoak), irtenbide eta helmuga ugaritakoa, aberatsa, nahi denean zehaztasunetan, eta nahi denean asmakizunetan aritzen dena.

VYGOTSKIK baieztatzen du *kanpo hizkeran* ere zenbaitetan horrela egiten dugula: "todas estas particularidades pueden surgir, en determinadas condiciones, en el lenguaje exterior: **ES IMPORTANTE QUE ESTO ES POSIBLE EN GENERAL**, que la tendencia a la predicatividad, a la reducción del aspecto fásico del lenguaje, a la prevalencia del sentido sobre el significado, a la aglutinación de las unidades semánticas, a la influencia de los sentidos, al carácter idiomático del lenguaje, pueden observarse **TAMBIEN EN EL LENGUAJE EXTERIOR**".

Badirudi VYGOTSKI bertsolaritzaz mintzo dela. Interesgarria da benetan guzti hau. Haur bertsolaria eraikitzeke apostua ote da Erreformaren funtsa? Nire ustez, azken galdera honek euskal hezitzaileen artean sor ditzakeen harridurak erakusten digu Herri honek egin behar duen Erreformaren muga eta oztopoa. Beraz, bego honetantxe puntu garrantzitsu hau.

Eta nolaz utzi oroitzeke OTEIZAREN "Aldaketen Lege" eredu bifasikoa, euskara euskaldunon zerbitzura etorri denean (M. URBIETAREN musikagintzaren antzera), barne hizkeraren ezaugarriak, irudiz eta pentsamenduz beteriko euskara sortuz, birsortuz eta isilduz, haurren ahotan

jaio daitezkeenean?

Antropologia ikuspegitik gauza bera gogorazten digu Joseba ZULAIKAK: "La versión lingüística del significado básico es que "una palabra básicamente significa una cosa"; para cualquier investigación antropológica es evidente que esta semántica básica olvida gran parte de la riqueza lingüística y del simbolismo cultural".

Filosofiatik eginiko deia askoz ere larriagoa da: "El hecho de pensar se está convirtiendo en tabú" (Eugenio TRIAS).

Beraz, pentsamenduan dago gakoa, historia bat asmatzeko gaitasunean, hitzak baino haruntzagoko irudietan, zentzu anitzeko esamolde eta jolasetan. Alderantzizkoa entzu-



ten da gure artean hain zuzen ere; irakasleok errezeta bila gabiltzala, liburuetan oinarritutako irakaskuntzari erabat loturik gaudela,... e.a., e.a.

Jakin badakit hemen aipatutakoek berehala jasoko dituztela aurkako iritzia, ongi espresatzearen garrantzia azpimarratuz, klaseak ongi taxutu eta prestatuak izan behar dutela aldarrikatuz, e.a., e.a.

Lerro hauen intentzioa ez zen horiek zalantzan jartzea baizik eta, gure gaurko hezkuntz-irakaskuntz ildoaren zutabeak ongi dauden azter-

tzea.

Espainiako Erreforma idatzi dutenek ongi ohartu dira honetaz: "Aprender lengua debe ser aprender a usarla, a manipularla, a CREARLA Y RECREARLA" (Diseño Curricular Base. MEC.) Uste dut halaz ere, ideia hauen ondorio guztiak ateratzeko abantaila aproposak ditugula gure artean, adore pittin bat ipiniko bage-nu. Baina oraingoan ere nora begira ote gaude?

Juan DELVAL.-
Los fines de la educación.
Siglo XXI de España, S.A.

Ia lurralde gehienetan, hezkuntzaren krisialdiaz hitzegiten da aintzinatik. Beraz, Hezkuntzak, aldizkako krisien eragina jasaten du.

Begi bistakoa da hezkuntza erakundeak ez direla moldatzen ezarritako helburu eta beharrian sozialetara. Horregatik, helburu eta beharrian sozialak aldatuz doazen heinean hezkuntzak ere aldatu egin behar du. Hori dela eta, ia lurralde gehienetan hezkuntza erreformaz hitzegiten da etengabe. Eta erreforma bat planteatzerakoan ezinbestekoa da hezkuntzaren azken helburuez eztabaidatzea, aldaketa adierazgarriak lortu nahi badira bederen.

Gazte-belaunaldiaren sozializazio metodikoan datza hezkuntza, eta gizarte-arauekin ados egongo diren gizaki helduak ekoizteko da, DURKHEIMEk zioen bezala. Gizarte bakoitzak bere berezko helburuak dituenez, hezkuntzak ez du helburu bakar bat eta iraunkorrik; gizarte mota desberdinen arabera da, aldakorra eta sarritan, ikaslearen giza-talde edo klasearekin zerikusirik gabea.

XIX mendeko bigarren erdialdian eta herrialde aurreratuenetan hasi zen hedatzen oinarritzko hezkuntza gizabanako guztien-

gan. Hezkuntza, horrela, gutxi batzuen pribilegioa izatetik, orokortasunera hedatuz.

Beronek, menpekotasuna bultzatzeko edota eragiteko eta subjektu disziplinuak sortarazteko balio izan du; ikasleen errealitateaz ahazturik.

Irakasten zaizkien jakintza edo ezaguerak eta eskola-edukinak gero eta zailago eta ugariagoak direlarik. Gauza asko irakasten zaie, ulerkaitzak eta ahantzerrazak.

Hori, guztiok ongi baino hobeto dakigun arren, badirudi eskola-agintari eta agenteek ez direla horretaz jabetzen, bestela nekez uler baitaiteke irakaskuntza mota honi eusteko arrazoinik.

Halaz ere, irakaskuntza honetan sinesten dutenen arrazoinak aipatzearen, bata, izan liteke, une zehatz batean erabilgarriak izatez gain, nolabaiteko eragina uzten dutela eta honi esker eratzen omen da kultura gizabanakoarengan: bestea, edukin ulerkaitzak irakasteko arrazoina zera litzateke "menpekotasunaren bizkortzea", arestian aipaturiko menpekotasuna, hain zuzen.

Eskola, ezin da mugatu informazio zehatzak igortzera edota trebetasun mugatuak sortzera, aitzitik, gizabanakoaren "garapen orokorra" landu behar du.

Ikaskuntzak, trebetasun batzuk eskatzen ditu errealitatea interpretatu eta errealitate ereduak antolatzeke. Eta pentsamenduaren praktika, trebetasun hauen lagungarri izan-

go da (pentsamendu arrazionala); baina urratsez-urrats joatea eskatzen du, ikasten ari den ikasleak ere urrats hauek eman ditzan ahalbideratuz.

Haurrak, pentsatzeko, ezagutzak lantzeko eta bere uste eta aieruak errealitatearekin kontrastatu ahal izateko erak lortu behar ditu.


Horregatik, ikaslearen arabera beharretara mugatu eta bidenabar, eraginkorra izan nahi duen hezkuntzak, gizabanako libreak sortu nahi baditu behinik behin, berau nola garatzen den eta jakintza nola eratzen den ezagutzeko beharra du.

Eskola aldatzeko beharrezkoa zaigu eztabaida eragitea eta bultzatzea hau da, hezkuntza-helburuen gogoetaz; gizakiaren etorkizunaz,...kokapenez, harremanez,...

Hezkuntzak bizitza hobetzen lagun gaitzake, baina horretarako aldatu beharra dago, irauliz, eta iraganeko praktikei atxikirik gabe, aurrerantz joz.

Baina boterean daudenek ez dute inolako interesik hezkuntzan aldaketak gerta daitezen, hots, ez dute beste aldaketa sozial batzuekin garatu behar litezkeen benetako erreformen sorrerarik bilatzen. Horregatik, irakas-aspektu funtsezkoenak aldatu gabe uzten dituzten eragiketak dira hezkuntz erreforma guztiak, liburu honen egilearen ustetan.

Idoia ORUE BEASKOETXEA.



ISILIK

PEDAGOGI ALDIZKARIA

HARPIDETZA

Izen deiturak.....

Helbidea.....

Herria

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez.....

Kontu Korrontearen zenbakia

Sukurtsala (Ordezkaritza)


Sinadura




Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko
Kutxa**





IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ

IRAKASLE ELKARTEA

Plz. Amezketa 12 - 8.a F Donostia

Tfnoa: 45 51 00